

# Funtzio-Kategorien Jabekuntza-Garapenaz

ANDONI BARREÑA

(Salamanca Unibertsitatea)

## 0. Abstract

*In these last years, following the Principles and Parameters Theory (Chomsky 1981) an INFL multiple syntax head nature has been proposed (Chomsky 1989, Pollock 1989), separating the structures of the different agreements and tense. Referring to the Basque language Laka (1988b), Oyharzábal (1992) have also proposed different heads, among others, three different kinds of agreement and tense. On the other hand, it has also been said that the hierarchic order of all the functional categories can be different depending on the language (Iatridou 1990, Ouhalla 1992). On this basis, along our work we'll show the development of the acquisition of the functional categories INFL & COMP by a monolingual Basque child. We'll see that the acquisition is gradual, for after a presyntactic period (Bickerton 1991), and through different steps, different kinds of agreement, tense and the characteristics of the functional category COMP are used. Besides, we'll see the appearance of the negative forms, aspect and mood. Finally, we'll deal with the gradation of the different steps we find throughout the language acquisition, because this gradation may show us the hierarchic structure of the Basque sentence (Meisel 1994a).*

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Artikulu honetan haur euskaldun elebakar baten gramatikaren jabekuntzaren garapena deskribatzen ahaleginduko gara. Zehatzago esanik, gramatikaren barruan INFL eta KONP funtzio-kategorien ezaugarrien jabekuntza-garapena arakatuko dugu.

Jakina denez, euskaraz, INFL-ek, besteak beste, pertsona-komunztadura ezberdinak —subjektuarekikoa, zehar-osagarriarekikoa eta osagarri zuzenarekikoa—, aditz-denbora eta modua besarkatzen ditu. KONP-ek, bestalde, mendeko konplementagailuez gain, galdegaien eta NZ-perpausetako NZ-hitzen aurreratzea ahalbideratzen du (ikus Ortiz de Urbina 1988).

Jabekuntzaren arloan, bestalde, haurrak gramatika-egiturak erabiltzen hasten direnean, perpausaren egitura hierarkikoak ahalbideratzen dien hurrenkera gauzatzen dutelakoan gaude. Horrela, adibidez, Bickerton-ek (1991) zera uste du, urte bi inguru betetzen dituztenean, garunaren heltze neurologikoari esker, haurrek Gramatika

(1) Lan hau egiterakoan eskaini didaten laguntzagatik Andolin Eguzkitzari, Mariho Ezeizabarrenari, Itziar Idiazabali eta Peru Legorbururi nire eskerrik beroenak eman gura dizkiet. Edozelan ere, akatsak niri baino ez dagozkit.

Unibertsala deritzan hatsarre-multzoa erabiltzen hasten direla, aurreko ahozko ekoizpena gramatika-aurrekoa delarik, hots, gramatika-ezaugarririk gabekoa. Eta era berean, behin Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoa erabil dezaketelarik, ahozko ekoizpena gramatika-ezaugarrien arabera tajutzen hasten direla ere.

Beste zenbait ikerlarik ere dagoeneko zera zehaztu dute, hainbat hizkuntzatan hurrek hitz biko ahozko ekoizpenak gauzatzen hasi eta gero ere badutela gramatika-ezaugarririk gabeko edo funtzio-kategoriarik gabeko aro bat, eta ondoren funtzio-kategoria hauek tajaturik moldatzen dutela ahozko ekoizpena. Bide honetatik abiatu dira, esate baterako, Radford (1986), haur ingelesaren 19-25 hilebete bitarteko ahozko ekoizpena INFL eta KONP funtzio-kategoriarik gabekoa dela frogatzean; Aldridge (1986), ingelesaren jabekuntza-garapenean INFL-en ezaugarririk gabeko aro goiztiarra zehaztean; Parodi (1989), Radford-ek erakutsitako bideari helduz, haur frantses-aleman elebidunen jabekuntza-garapenean funtzio-kategoriarik gabeko aro goiztiar bat badagoela baieztatzean; Platzack (1989), suedieraren jabekuntzan funtzio-kategoriarik gabeko aro goiztiarra proposatzean; Lebeaux (1989), berak hizkera telegrafikoa deitzen duen gramatika-ezaugarririk gabeko aroa defendatu duenean; Meisel (1994a), haur frantses-aleman elebidunen lehenetariko hizkuntza aurre-sintaktikoa izanik ondoren garatzen dutena gramatika-hatsarreek bideratzen dutela mugatzean; eta Ouhalla (1992), azkenik, jabekuntza-garapen orokorrak ikertzen dituenen, gramatika-ezaugarririk gabeko aroaren ostean aditz-kategoriaren erabilera lehena izango dela eriztean.

Baliteke, beraz, hurrek, ikasten diharduten lehen hizkuntza bereganatzean, behin Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoa erabil dezaketelarik, aro edo urrats ezberdinak ezagutzea gramatika-garapenean, eta urrats edo aro ezberdin hauek duten hurrenkera perpausak berak duen egitura hierarkikoak bideratzea (ikus Meisel 1994a). Guzti honegatik zilegia da INFL-en ezaugarri ezberdinak erabiltzean, alegia, INFL-en egitura anitza gauzatzean ere beste horrenbeste gerta daitekeela pentsatzea.

Hatsarre eta Parametroen teoriaren eremuan (Chomsky 1981), bestalde, INFL-en barne-egiturari buruz azken urteotan proposatutakoak ere kontutan hartu beharko genituzke, ikerlari ugari sintaxi-buru honek izaera anitza duela onartu baitu, hots, INFL-en egiturak adabegi bat baino gehiago duela. Chomsky-k (1989), esate baterako, INFL-ek bereganatzen duen komunztaduraren arloan adabegi ezberdin bi proposatu ditu: subjektuarena eta osagarri zuzenarena. Pollock-ek (1989) INFL-en barnean denbora, komunztadura eta ezeztapena ezberdintzea defendatzen du. Iatridou-k (1990), bestalde, hizkuntza bakoitzaren funtzio-kategoriaren barne-egiturak ezberdinak izan daitezkeela diosku. Ouhalla-k (1991) INFL funtzio-kategoariaren aniztasunari helduz, beraren barnean ezeztapena, komunztadura, denbora, modua eta pasibotasuna onartzen ditu. Azken ikertzaile honek hizkuntzak eta berauek ezagutzen dituzten hitzordena ezberdinak, neurri handi baten, hizkuntzen INFL-en barne-hurrenkera ezberdinen arabera gertatzen direla dio, beraren ustez INFL-en barneko buru ezberdinek hurrenkera hierarkiko ezberdina har baitezakete. Besteak beste, Mendikotxeak (1992) ere subjektuarekiko eta osagarriarekiko komunztadurak buru-sintaktikotzat hizkuntza guztietan onartzea proposatzen du.

Euskararen eremuan Lakak (1988a eta b) INFL-en buru-aniztasuna defendatu du, nolabait beraren barruan hiru komunztadura ezberdinak, modua, aspektua eta denbora bereziz, eta hurrenkera zehatza proposatuz. Artiagoitiak (1992), ostera, aspektua ez dela sintaxi-burua erakutsi digu. Oyharçabal-ek (1992), komunztaduraren eremura mugatzen delarik, hiru komunztadura ezberdinak buru sintaktikotzat jotzen ditu.

Ezeztapenaren inguruan, Lakak (1988a) ezeztapena eta baieztapena kategoria berean batzen ditu euskararen eremuan, baina INFL funtzio-kategoriaren gainean, Eguzkitzak (1986) eta Ortiz de Urbinak (1988) INFL-en azpian izan daitekeela dioten bitartean.

KONP-i buruz, Ortiz de Urbinari (1988) jarraituz, zera esan dezakegu: buruztat mendeko konplementagailuak dituela, hots, menderagailu denboradunak, eta bestalde, KONP-en egituraren erabilerak, espezifikatzaile-gunera aurreratuz, galdegaien eta NZ-hitzen ezkerretaratzea ahalbideratzen duela<sup>2</sup>.

Hau guztiau ikusirik, eta haurrek burutzen duten gramatika-jabekuntza, nolabait, ikasten ari diren hizkuntza horrek ezagutzen duen perpausaren egitura hierarkikoak urratsez urrats bideratzen duela onartuz, interesgarria deritzogu INFL-en barneko gramatika-ezaugarri guzti hauek eta KONP funtzio-kategoria haurren jabekuntza-aren garapenean zein hurrenkeratan gertatzen diren arakatzeari, balitekeelako jabekuntza-hurrenkera honek euskararen INFL-en izaera eta barne-egitura, eta funtzio-kategoriena, nolabait isladatzea.

## 2. Korpusa eta metodologia

Ikerlan honetarako erabiliko ditugun datuak Oitz deritzan haur euskaldun elebarrak 1;05eko adina izan zuenetik 4;00ko adina izan arte ekoitzirikoak dira. Datu-bilketa hau Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia Saileko H.E.G.E.H.J.<sup>3</sup> ikerketa-taldeak burutu du haurra bideo-grabatuz.

Bideo-grabaketak etxeko berezko giroan gauzatu dira, haurragaz batera gurasoren bat jolasten eta kontu kontari hogeita hamarren bat minututan ari delarik. Grabaketak transkribatuak izan dira, gurtzenez hileroko bat, eta ondoren, haurra ondo ezagutzen duen batek transkribaturikoa zuzendu egin du. Erabili ditugun bideo-grabaketa transkribatuen zerrenda, adinaren arabera tajaturik, 1. taulan ikus daiteke.

Haurrak ekoitziriko ahozko ekoizpen horietatik, errepikatze hustzat jo daitezkeenak, beragaz diharduen mintzaideren batek aurretik esandakoak alegia, baztertu egin ditugu gure ikerketatik.

(2) Beste ikuspegi bat, esate baterako, Uriagerekaren (1992) lanean aurki daiteke.

(3) "Haur Euskaldun Gaztelaniadun Elebidunen Hizkuntza Jabekuntza" ikerketa-taldea, Itziar Idiazabal irakaslearen gidaritzapean, honako lankide hauek osatzen dute: Kristina Eloseggi, Mariho Ezeizabarrena, Margareta Almgren, Elena Urzelai, Susana Irizar, Idoia Imaz, Izaskun Soloeta eta Andoni Barreña. Talde honek, bestalde, Hanburgeko Unibertsitateko Jürgen Meisel irakasleak zuzentzen duen B.U.S.D.E. proiektuagaz batera dihardu lanean.

## 1. TAULA

OITZ HAURRAREN EBBL-NEURRIAK, EBBL-MAILAK ETA EL-BALIOAK ADINAREN ARABERA

Adina	Ebbl-a	Maila	El-a
1;05;19	1,12	I	2
1;06;22	1,14	I	3
1;07;20	1,23	I	3
1;08;29	1,41	I	4
1;10;12	1,38	I	4
1;11;05	1,75	I	5
2;00;05	1,77	II	7
2;00;26	1,93	II	4
2;01;19	1,94	II	8
2;02;00	2,28	III	6
2;03;09	2,36	III	7
2;04;11	2,45	III	8
2;04;24	3,34	IV	10
2;05;05	3,23	IV	10
2;05;21	3,40	IV	10
2;06;05	3,79	V	11
2;06;25	3,43	IV	11
2;07;05	3,40	IV	17
2;08;13	4,12	+ <sup>4</sup>	17
2;08;19	3,97	V	15
2;09;00	4,64	+	15
2;10;12	4,14	+	15
2;10;29	4,35	+	15
2;11;12	3,89	V	19
3;00;10	4,21	+	15
3;01;12	5,36	+	17
3;01;28	4,45	+	13
3;02;04	5,21	+	17
3;03;00	4,70	+	18
3;04;22	5,44	+	17
3;05;27	4,93	+	19
3;06;24	6,27	+	19

(4) Brown-ek asmatuturiko neurketa-moeta honek ebbl-neurriak 5 mailatan sailkatzen ditu, V mailako baliotik handiena 4,00koa delarik. Haurrak balio hori baino handiagoko ebbl-a baldin badu, heldutasun handia lortu dela onartzen da eta beraren gramatika-ahalmena oso garrantzitsutzat jotzen da. Guk, lan honetan, + ikurra erabiliko dugu hizkuntza-maila adierazteko, ebbl-a 4,00 baliotik gainekoa denean.

Bestalde, grabaketako uneez, adinaz gaineko informazioa izan dezagun, ebbl-neurriak<sup>5</sup> 1. taulan jarri ditugu. Ebbl-neurriekaz batera, ebbl-mailak<sup>6</sup> eta el-balioak<sup>7</sup> ere ikus daitezke.

Bestalde, arakatuko ditugun hizkuntza-unitateak aditz-multzoaren ingurukoak izango dira, hara nola: komuntadura ezberdinak, aditz-denbora eta aditz-modua derakusaten adizkiak, aspektua derakusaten adizki jokatu-gabeak, *ezin* eta *abal* partikulen bidez buruturiko aditzak, ezeztaturiko eta baieztaturiko aditz-multzoak, eta abar. Haeuz gain, NZ perpausei eta menderagailuei ere begiratuko diegu.

### 3. Funtzio-kategorien jabekuntza-garapena

Funtzio-kategorien jabekuntzaren garapena atalka aurkeztuko dugu. Atal ezberdinek jabekuntza orokorreko aro bereziren bat edo INFL eta KONP-en ezaugarriren baten edo balizko baten jabekuntza erakutsiko digute.

Atal ezberdinen agerrera-hurrenkera haur honek burutzen duen jabekuntzaren arabera gauzatuko dugu.

#### 3.1. Gramatika-ezaugarririk gabeko aroa

Nabarmena gertatzen da 1;05;19ko adina duenetik 1;11;05eko adina duen arteko ekoizpenean ez dugula gramatika-ezaugarriez eraikitako esaldirik aurkitu.

Aldi honetan haurren ekoizpena hitz bakarreko, zein biko edo anitzetako esaldietan, gramatika eta sintaxi-ezaugarririk gabeko hitz-elkarketak gauzatzera mugatzen da. Ez darabil, esate baterako, inolako kasu-markarik, ez gramatika-kasurik, ez bes-telakorik; aditz-laguntzaileek derakusaten inolako ezaugarririk; ezta aditz jokatu-gabeek erakusten diguten aspektu-markarik; ezta inolako menderagailurik. Hona hemen gramatika-ezaugarrien ekoizpen eza erakusten diguten adibide apur batzu:

- (1) Jugi atara<sup>8</sup> (1;07;20)                      (3) Amane Pe(d)ro<sup>10</sup> (1;08;28)  
 (2) popota apu(r)tu<sup>9</sup> (1;06;22)

Lehenengo adibidean subjektuari ergatiboaren marka ez jartzeaz gain, aditzaren laguntzailea ere falta da, bigarren adibidean bezalaxe. Hirugarrenean genitiboaren

(5) Ebbl-neurria, hots, *esaldiaaren bataz besteko luzera* deritzan neurria, Brown-ek (1973) asmatu zuen haurren hizkuntza-maila neurtzeko asmoz. Euskararako moldaketa Idiazabalek (1991a) egin zuen, eta guk honen erizpideez baliatu gara. Neurketa honen bidez, haurrak une bakoitzean darabilen hizkuntzaren konplexutasuna, morfema ezberdinen erabilera alegia, neurtu egin gura da.

(6) Brown-ek (1973), haurren hizkuntza-egoera orokortasunean sailkatzeko asmoz, ebbl-neurriak bost hizkuntza-mailatan berezi ditu: I. maila: 1,00 - 1,75; II.a: 1,76 - 2,25; III.a: 2,26 - 2,75; IV.a: 2,76 - 3,50; V.a: 3,51 - 4,00.

(7) Une horretako *esaldirik luzeena* adierazten du, lexemak eta morfemak zenbatuta.

(8) Haur honek bizkaiera ikasten dihardu, eta adibide honetan ergatiboaren marka ekoiztea dagokio.

(9) Ekoizpen honetan adizki laguntzailea falta da.

(10) Oitzentzat *Amane* izen bereziak *ume* izen arruntaren zentzua du, eta *Pedro* izenak, ostera, *guraso* izenarena. Ekoizpen honetan, ipuin bat begiratzen diharduelarik, *umearen aita* edo *aitaren umea* esan beharko luke, baina genitibo-markarik ez du ekoizten.

marka ez du ekoitzi, inguruak ekoizpen hau *Amaneren Pedro* edo *Pedroren Amane* izan beharko litzatekeela erakusten baitigu.

Edozelan ere, aro honetako ezaugarriak ikerlan honetan zehatz-mehatz aztertzeke asmorik ez dugula aurreratuz<sup>11</sup>, badira zenbait berezitasun azpimarragarri:

– Izentzat eta adjektibotzat jo daitekeen materiale lexikoa *-a* markaz ekoizten duela. Baina morfema honen erabilera ez dugu gramatika-ezaugarriren baten erabile-ratzat hartzen. Gure ustez, aro honetan, lexikoaren jabe-kuntza burutzean, *-a* marka eta guztiz bereganatzen ditu hitzak. Ondoren, izen-sintagmaren beste mugatzaileak erabiltzean edo *-a* marka sintagmako osagai guztiei erantsi beharrean ezkerrekoari baino ez atxikitzean bereganatuko du arlo honetako gramatika-ezaugarriaren jabe-kuntza. Baieztapen honetan bat gatoz, beraz, Idiazabal-en (1991b) eritziagaz, izen-sintagmaren jabe-kuntza haur honek 2;00;05eko adinaz *bat* mugatzailea erabiltzean erakusten duela baitio.

– Darabiltzan aditzak, grabaketetako ekoizpenei dagokienez, nini-aditzak deitzen ditugun aditz bereziak (*nanan, aupa, ...*) edo aspektu burutuaren marka duten aditz jokatu-gabeak dira (*etorri, apurru, ...*). Halere, bere gurasoek idatzi duten egunerokoa ikusirik, badirudi aro honetan gai dela indikatiboko orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizki trinko batzu erabiltzeko (*da, dago*). Aro honetan jokabide berbera erakusten dute beste hainbat haurrek (ikus Ezeizabarrena 1994 edo Barreña 1993). Era guztietan, adizki trinko hauek ez dute pertsona-komunztadurarik erakusten, edozein subjektuz erabiltzen baitituzte aro honetan dauden haurrek. Eta Oitzek ere gauza bera egiten du. Guztiak, beraz, lexematzat har ditzakegu aldi honetan, esanahi hutsa baino ez baitute adierazten.

– Aldi honetako hitzordenari buruz zera esan dezakegu: aditzen batez osaturik ekoizten dituen hitz biko eta anitzeko esaldi deklaratuak guztietan (guztira 19 ekoizpen) aditza beti jartzen duela amaieran. Ez du joera bera aginte-esaldiekaz agertzen, hauetan aditza esaldiaren amaieran zein hasieran ekoizten baitu. Hona hemen bietariko adibideak:

- |                           |                           |
|---------------------------|---------------------------|
| (4) ajgia aputu (1;07;20) | (6) nirie emon! (1;10;12) |
| (5) ni igon (1;11;05)     | (7) emon nirie! (1;10;12) |

– Sarritan, hitz biko eta anitzeko ekoizpenetan, nabaria da mintzagaitzat jo dezakegun osagaia esaldiaren eskumatan agertzea. Ondoko adibideetan inguru eta guztiz erakutsiko dugu jokabide hau:

- (8) a(r)gia, a(r)gia (b)apez, a(r)gia (b)apez (1;05;19) (Grabaketa egiten ari diren gelako argia amatatzean)
- (9) o(ra)in hartu (1;11;05) (Bere amak une honetan kotxea beste leku batera bidaltzea proposatzean, haurrak orain hartzea kontraproposatzen dio)

(11) Aldi honetako ezaugarriek zehatzago begiratzeko ikus Barreña (1993 eta agertzeko).

### 3.2. Adizki trinkoen eta laguntzaileen erabilera

Oitz haurrak 2;00;05eko adina betetzen duenean, besteak beste, adizki trinkoak eta laguntzaileak hasten da ekoizten grabaketetan zehar. Halere, honek ez du esan nahi beti ekoizten dituenik, lantzean behin ekoizten hasten dela baino. Hona hemen adizki bietariko zenbait ekoizpen:

(10) azala izan da (2;00;05)

(12) ez daki (2;01;19)

(11) argie izetu da (2;01;19)

(13) ez da(g)u hemen (2;00;05)

Aditz-multzoaren inguruan berezketa hau baino ez duenean erakusten, ekoizten dituen forma guztiak, indikatiboko orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak dira: *da*, *daki*, *dago*, *dauka*. Baina ez derakusa pertsona-komuntaduraren jabekuntzarik, forma hauek edozein subjektuz baitarabiltza. Hona hemen une honetako pertsona-komuntaduraren erabilera zuzena ez dela erakusten diguten adibide bi:





(14) bi da(g)u (z) (2;00;05)

(15) (nik) ez daki(t) (2;01;19)

Edozelan ere, azpimarragarria iruditzen zaigu adizki trinkoen eta laguntzaileen artean egiten duen ezberdintasuna. Zehatzago, *da* forma laguntzaile zein trinko legez darabil. Gainera kontutan izan behar dugu, pertsona-komuntaduraren erabilera zuzena ez duela 2;02;00/2;03;09ko adina duen arte erakutsiko.

Gure irudiko, eta aditzaren arlora mugaturik, nabaria da une honetan, trinkoak eta laguntzaileak bereztean, nolabaiteko gramatika-ezaugarriaz baliatzen dela. Gainera une honetan gramatika-kasuen zein izen-sintagmaren mugatzaile ezberdinen erabilera ere, besteak beste, ikus dezakegu.<sup>12</sup> Baina non kokatu behar dugu aditzaren arloko gramatika-ezaugarri hau? Aditz-kategoriaren arloan? Ala, aitzitik, INFL funtzio-kategoriaren eremuan?

Alde batetik, Ouhalla-k (1992) dioena kontutan izanik, badirudi une honetan haurra aditz-kategoriaren erabilera burutzen hasten dela. Gogoan izan dezagun ikertzaile honen ustetan hurrek lehen aldi baten, aditz-kategoriaren jabekuntza burutzean, egitura hau edozein hurrenkeratan erabiltzen dutela, burua eta osagarria ezkerretara zein eskumatara jar ditzaketelarik:



(12) Hau guztiau zehatzago aztertzeko, ikus Barreña (1993).

Horrela, espezifikatzaile-gunean subjektua ekoizten dela onetsiz, SOA, AOS, SAO eta OAS hurrenkerak ekoitz ditzaketen bitartean, ezin dituzte OSA eta ASO hurrenkerak ekoitz.

Eta aldi honetan, esaldi deklaratzaileak ekoiztean, haur hau SOA, SAO eta OAS hurrenkeretako esaldiak burutzen hasten da, aurreko gramatika-ezaugarririk gabeko aldian aditza beti eskuman jartzen zuen bitartean.

Baina bestalde, Meisel-ek (1994a) dioenez, INFL-en jabekuntzaren hasieran, mugatasuna eta subjektuarekiko pertsona-komunztadura dira agertuko zaizkigun lehenak. Ez ote gaude, beraz, aditz-mugatasunaren jabekuntzaren hastapenean adizki trinkoak eta laguntzaileak berezten hasten denean? Halere, Meisel-entzat, mugatasun-ezaugarria gerta dadin subjektuarekiko komunztaduraren edo aditz-denboraren erabilera ere agertu behar da. Eta azken ezaugarri hauetariko bat bera ere ez dugu une honetan aurkitzen.

Ezeizabarrenak (1994) haur euskaldun elebidun biren korpusa aztertzean<sup>13</sup>, adizki laguntzaileak erabiltzea, INFL-en beste ezaugarririk oraindik ez darabiltenean, aditz-mugatasunaren jabekuntzaren aldeko frogatzat hartzen du. Beretzat, adizki laguntzaile hauek mugatasuna adierazten dute, orain arte erabili dituzten aditz guztiak lexema hutsak izan diren bitartean. Eritzi honen arabera, bada, haurrak INFL-en jabekuntzaren lehen urratsean leudeke.

### 3.3. Ezeztapena eta baieztapena biltzen dituen kategoriaren erabilera

Baina une goiztiar honetan, 2;00;05eko adina duenean hain zuzen, beste fenomeno bat ere ikus dezakegu lehen aldiz haur elebatar honen ekoizpenean: ezeztaturiko aditz-multzoen eraiketa, alegia.

Haurrak 2;00;05eko adina duenetik 2;02;00 adina duen bitartean (guztira lau bideo-grabaketa), aditz jokaturen batez buruturiko 7 ezezko esaldi gauzatzen ditu, eta hirutan ezeztapenak eta aditz jokatuak osatzen duten multzoa esaldiaren ezkerretan agertzen zaigu:

(20) ez da(g)u hemen (2;00;05)

(22) ez da(g)u garbian (2;02;00)

(21) ez da(g)u zezena (2;00;26)

Besteetan, ostera, aditzondoren batek zabaltzen du esaldia. Hara nola:

(23) hor ez da(g)u (2;00;26)

(24) han ez da(g)u (2;00;26)

Baina kontutan hartzen badugu aurreko aroan, hots, gramatika-ezaugarrik gabeko aroan, sarritan mintzagaitzat har dezakegun osagaia ekoizten duela esaldiaren hasieran, zergatik ez dugu pentsatu behar ezezko esaldi hauen hasieretan dauden aditzondoak mintzagaian ez daudenik?

Mintzagaian baleude, eta ekoizpenen inguruak aztertuz ez dago aurkako eritzia- ren aldeko frogarik, ezezko esaldietan ezeztapenak eta adizki jokatuak osatzen duen multzoak egituraren ezkerretan agertzen zaizkigula onartu beharko genuke.

(13) Ezeizabarrenak (1994) ez du Oitz haurraren daturik arakutzen ikerketa honetan. Berak, aldiz, HEGEHJ ikerketa-taldeak bilduriko beste haur elebidun biren datuak eskaintzen dizkigu.



Zelan ulertu beharko genuke orduan, esaldi deklaratuile guztien artean, aditza esaldiaren hasieran, ezkerretan, dutenak ehuneko 5era ez heltzea eta ezezkoena, ostera, ehuneko 100 izatea?

Baina bada aldi honetan beste ekoizpen garrantzitsu bat ere: baieztapena erakusten duen adibidea, hain zuzen. Hona hemen berau:

(25) Oitz Txikik badeko handia (2;01;19)

Alde batetik zera esan behar dugu, lehenago onartu dugula haur honek SAO hurrenkera darabilela. Baina bestetik, nabaria da, ekoizpen honen ingurua ikusirik, subjektua, haurra bera, alegia, dela mintzagai. Ez ote da gertatuko, bada, ezezkoetan gertatzen den fenomeno bera? Hots, aditz-multzoaren ezkerretaraztea.

Hau guztiau ikusirik, gure ustez, une honetan haurrak badarabil ezeztapena eta baieztapena biltzen dituen kategoria, eta kategoria honen egituraren erabilerak, aditz-multzoa, ezeztapena eta baieztapena barne, egituraren ezkerretara aurreratzea ahalbideratzen dio, batzutan esaldiaren hasieran mintzagairen bat ikus dezakegun arren.

Meisel-ek (1994b) haur honen eta beste hiru elebidunen ezezko eta moduzko esaldiak aztertutik, ezeztapena aditz jokatu gabeen ezkerretan jartzen hasten diren unetik aditz-sintagmatik kanpo mugitu dutela uste du, eta mugimendu horretarako KONP egituraren beharra aldarrikatzen du. Oitz haurraren ekoizpenean, eritzi honen arabera, 1;11;05eko adinean gertatzen da KONP kategoriaren lehen jabekuntza, gutxienez ezezko fenomenoei dagokien ezaugarriarena.

Guk ez ditugu, haatik, gauzak hain argi ikusten, Oitz haurraren datuak ikusirik behinik behin. Jarraian arazo hau zehatzago azaltzen ahaleginduko gara. Hasteko hona hemen Oitz haurrak aditzen batez osaturik ekoizten dituen hasierako ezezko esaldiak<sup>14</sup>:

## 2. TAULA

### OITZ HAURRAREN LEHENENGO EZEZKO ESALDIK

- 1;10;12: ezin atara  
 1;11;05: ezin hartu; ezin ibili; ezin i(g)on; Mikel(ek) ezin atara; ez ibili; ezin atara  
 2;00;05: ezin da; o(ra)intxe ezin da; gu piano ezin jo; ez amata(t)u; ez ipini, Jurgi; ez juen, ama; ez, izotu ez  
 2;00;26: hemen ez da(g)u; hor ez da(g)u; ez da(g)u zezena; ez atara; susta(t)u ez; bil(d)urtu ez  
 2;01;19<sup>15</sup>: ezin atara Antonio(k); horti ezin da; ez daki; ba ez daki  
 2;02;00: inor(k) ez kendu bere gol; inor(k) ez kendu; ez da(g)u garbian; Amaia etorri bapez; punba ez; oin punba ez<sup>16</sup>; ez daki(t); ez da(g)u; ezin ikusi  
 2;03;09: ez dabil; ez dakit; ez daki(t); holan ez da; bapez jolastu; ni bapez busti; ezin da; ez atara; ez bota gainera  
 2;04;11: ta ezin da ipini; ni(k) ez ikutuko oholak; ez da(g)uz zikinak; ez da jauten; ...

(14) Zerrenda honetan ez dugu ezeztapen anaforikoaz osaturiko esaldirik erakutsiko.

(15) Grabaketa honetan *nanan ez*, eta *nanan bapez* esaldiak ere ekoizten ditu Oitzek. Gure ustez ez dago bat ere argi *nanan* hitza zer den, aditza ala izena, bietariko edozein izan baitaiteke.

(16) Zalantzarriak iruditzen zaizkigu *punba* zein *bapez* hitzen lexiko-kategoriak. Edozelan ere, zerrenda honetan jartzea erabaki dugu.

Datuak ikusirik, Oitzek hasieran *ezin* ezeztapen legez darabilela argi dagoela uste dugu. Partikula hau zein 1;11;05eko adineko grabaketan behin darabilen *ez*, hasiera-ko aldi honetan beti agertzen zaizkigu aditzaren ezkerretan, aditz-multzoa jokatu-gabea zein jokatuia izan arren.

Ez duguna hain argi zera da: *ezin* eta *ez* partikulak aditz jokatu-gabeen ezkerretan agertzen direnean, hor daudela KONP-en espezifikatzaile-egongunera aurreratu dituelako. Hasteko, *ezin* ezeztapen-partikula beti ekoizten du aditzaren ezkerretan. *Ez* ezeztapen-partikula, ostera, ezkerrean (1;11;05eko adinaz lehen adibidea) zein eskuman (2;00;05eko adinaz lehen adibidea) ikus dezakegu. Alabaina, eskuman agertzen denean aditza mintzagaia dela esan daiteke. Eritzi honen alde hiru adibide ikusiko dirugu, bitan, aditza ezeztapenaren ezkerrean agertzen zaigunean, aditza mintzagaia dela segurta daiteke, hirugarrenean, aditza ezeztapenaren eskuman agertzean, aldiz, ez da mintzagaia.

- (26) Oitzen anaiak argi-lanpara piztu egin du, eta Oitzek zera diotsa:  
 Oitz: zu ze(r)tan?  
 Oitz lanpara dagoen tokira abiatzen da.  
 Jurgi: Ez!, ez!, ez!  
 Oitz (lanpara itzaltzen duen bitartean): ez, izotu ez, amata(t)u bai (2;00;05)
- (27) Amak kantatzen dihardu eta Oitzek ez du kanta dezan nahi.  
 Oitz: susta(t)u ez!, bil(d)urtu ez! (2;00;26)
- (28) Oitzek eta bere amak berriketan dihardute  
 Ama: Oitz etorri! Guazen! Guazen txiza e(g)iten ba! (baina ama oraindik ez da abiaru)  
 Oitz: ez, ez juen ama (2;00;05)

Lehenengo adibide bietan egin den ekintza desegin gura izango luke haurrak, eta aditza mintzagaian ekoizten du, esaldiaren hasiera-hasieran. Ezeztapena, beraz, aditzaren eskuman agertzen zaigu. Ekoizpen hauek, gure ustez, hatsarre pragmatikoaz eraikiak daude. Hauez gain, batzutan aditzaren eskumatan agertzen zaigun *bapez* partikula ez dago hain argi zer den.

Ezeizabarrenaren (1991) eta Barreñaren (1993) ikerlanak ikusirik, hiru haur elebidunen eta Oitz elebakarraren ezeztapenak aztertu dituztelarik, ikertzaile hauek eskaintzen dizkiguten aditzaren eta ezeztapenaren hurrenkerari buruzko datuak 3. taulan bildu ditugu. Laburturik zera esan dezakegu: ezeztapena aditz jokatu-gaberen baten eskumatan jartzea (jokatuen eskumatara ez baitute behin ere ekoizten) bakarrik haur elebidun batengan gertatzen dela aditz jokatu edo jokatu-gaberen baten ezkerretan jartzea baino goizago, Jurgirengan alegia. Jurgik ezeztapena (*ez*, hain zuzen) aditz jokatu-gabearen eskumatan 2;07ko adinaz ekoizten duen bitartean, 2;08ko adinaz hasten da *ez* eta *ezin* aditz jokatuen ezkerretan ekoizten (ikus Ezeizabarrena 1991). Beste hiru haurren (Oitz, Mikel eta Peru) ekoizpenetan, ezeztapenen bat aditz jokatu-gabearen eskumatan agertzen denerako, haurrek badarabiltzate subjektuarekiko komunztadura derakusaten adizkiak. Oitzen kasuan ez ordea. Baina argi dakusagu Oitzek aditz jokatu-gabea ezeztapenaren ezkerretan jartzen duenean mintzagai-hatsarreak baliatzen ari dela. Bestalde, 2;00;05eko adinetik aurrera, dagoneko ezeztapenak sarritan erabiltzen dituen aditz jokatu-gabe zein jokatuen ezkerretan, Oitzek aditz-multzoa ezkerretazko gaitasunaz jabetu dela ikusi dugu gorago. Eta

ezkerreratzeko gaitasun honi esker Oitzek *ezin atara Antonio(k)* 2;01;19ko adinaz dioen bitartean, 1;11;05eko adinaz *Mikel(ek) ezin atara* erran du.

### 3. TAULA

EZEZTAPENAREN ETA ADITZAREN LEHEN HURRENKERA-DATAK LAU HAURRENGAN<sup>17</sup>

	Oitz	Mikel	Peru	Jurgi
Aditz jokatu-gabea + Ezeztap.	2;00;05 (ez) 2;01;19 (bapez)	-	2;04;15 (ez)	2;07 (ez)
Ezeztap. + aditz jokatugabea	1;10;12 (ezin) 1;11;05 (ezin,ez)	2;00;00 (ez)	2;07;09 (ez)	
Ezeztap. + aditz jokatua	2;00;05 (ezin) 2;00;26 (ez)	1;07;14 (no) 1;07;27 (ez)	1;11;29 (ez) 2;04;15 (ezin)	2;08 (ezin,ez)

Guretzat, gramatika-ezaugarriak gabeko aldi goiztiarreen, 1;05;19 - 1;11;05 al-dian alegia, Oitz haurrak *ez* edo *ezin* ezeztapena aditz jokatugabearen aurrean gauzatzen duenean, *ez* da ari KONP egitura edo gramatika-ezaugarriren bat erabiltzen, ohiko hurrenkera gauzatzen baino. Aldi honetako bere jokabideaz bat datorren hitzordena (aditza eskumatan) eta entzuten duen euskararen hurrenkera erabiltzen duela esango genuke. Ezeztapena aditzaren eskumatan ekoiztea, bestalde, mintzagai-hatsarrez baliatzea da, haur honek hasiera-hasieratik darabilen hatsarrea, hain zuzen ere. Egongune honetan, aditz jokatugabearen eskumatan, *bai* baieztapen-partikula ere aurkitu dugu (ikus (26) adibidea) mintzagai-hatsarrez eraikiriko ekoizpen baten<sup>18</sup>.

Gainera, Meisel-en datuetara itzuliz, berak aztertzen dituen beste hiru haur elebidunek, ezeztapena aditzaren eskumatan) dagoeneko subjektuarekiko pertsona-komuntadura darabilenean ekoizten dituzte.

Laburbildurik, beraz, Oitz haurrak ezeztapena eta baieztapena biltzen dituen kategoriaren erabilera 2;00;05eko adinera arte ezin daitekeela segurta uste dugu, adin horretan adizki jokatu trinkoen aurrean agertu eta aditz-multzo osoa esaldiaren ezkerretan agertu arte, alegia (ikus (20), (21) eta (22) adibideak). Ezeztapena aditz jokatugabearen eskumatan agertzen denean haurrak (Oitz behintzat) mintzagai hatsarrez baliatzen direla esan dezakegu. Beste haurren datuek ez dugu uste eritzi hauek zalantzan jartzen dituztenik. Meisel-ekin, ostera, bat gatoz ezeztapen-arloko gramatika-ezaugarria<sup>19</sup>, hots, balizko sintaxi-kategoria, haur euskaldun elebakar honek berreganatu duen lehena dela dioenean.

(17) Oitz, Mikel eta Peru haurren datuak Barreñaren (1993) lanetik hartu ditugun bitartean Jurgirenak Ezeizabarrenarenetik (1991) jaso ditugu.

(18) Arakaturiko Oitzen korpusean, 2;04;11ko adinaz aurrera, dagoeneko *ez* ezeztapen-partikula adizki laguntzailearekin batera aditzaren ezkerretan ekoizten duenean, *bai* partikula beti aditz-multzo osoaren ezkerretan ekoizten du, adizki laguntzailea aurreratu barik. Hona hemen adibide bat: *bai jausten da* (2;04;11).

(19) Gure ustez, ezeztapenak eta baieztapenak kategorio bera osatzen dute, eta beraren jabeakuntza batera argi ikusten da Oitzen korpusean zehar.

### 3.4. Subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera

Pertsona-komunztaduraren arloan subjektuarekikoa da haur honen korpusean agertzen zaigun lehena. Pertsona ezberdinei dagozkien lehen ekoizpen kontrajarriak 2;03;09ko adina duen grabaketan ikus ditzakegu. Bertan adizki iragangaitzetan zein iragankor trinkoetan lehen eta hirugarren pertsonak berezten ditu. Hona hemen lehenengo adibide hauek:

- (28) hola, ni naz; ni naz, onbe ume!; hola, ni na! (2;03;09)  
 (29) hau izan da (2;03;09) (32) ez dakit (2;03;09)  
 (30) ez dabil (2;03;09) (33) (hark) bai daki (2;03;09)  
 (31) badakit (2;03;09)

Hurrengo grabaketa transkribatua, 2;04;11koan alegia, forma iragankorrek ugalduegitean dira, singularreko bigarrenekoak eta pluraleko hirugarrenekoak ere ageriz. Hona hemen zenbait adibide:

- (34) hau ez dekot ipinita (2;04;11) (36) badakizu zer? (2;04;11)  
 (35) berak badaki zubia eiten (2;04;11) (37) ez da(g)uz zikinak (2;04;11)

Grabaketetan zeharko adizki jokatuena lehen agerpen datatuak 4. taulan ikus ditzakegu. Kontutan izan singularreko hirugarren pertsonari dagokion forma erabiltzen hasten denean ez duela era kontrajarrian besterik erabiltzen, eta jabeakuntzan zerbaiten baieztapena izatean beharrezkotzat jotzen dela gutxienez forma kontrajarri biren erabilera zuzena.

## 4. TAULA

OITZEN SUBJEKTUAREKIKO KOMUNZTADURAREN ERABILERAREN HASIERAKO UNEAK

	Adizkia	Morfema	Adina
Iragangaitzak:			
Sing. 1. perts.	na(i)z	n-	2;03;09
Sing. 3. perts.	da, da(g)u	d-	2;00;05
Plur. 3. pert.	da(g)uz	d-, -z	2;04;11
Iragankorrek:			
Sing. 1. perts.	dakit	-t	2;03;09
Sing. 2. perts.	dakizu	-zu	2;04;11
Sing. 3. perts.	daki	-0	2;01;19

Adizki iragankorretan, ostera, ez dakusagu, une honetan, osagarri zuzenarekiko komunztaduraren jabeakuntzarik, darabiltzan aditz-forma guztiak singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak baino ez dira eta. Ez dago arlo honetan, beraz, erabilera kontrajarririk.

Subjektuarekiko komunztadurara itzuliz, 5. taulan haur honek 3;00;10eko adina duen arte ekoizten dituen NOR (iragangaitzak) eta NOR-NORK (iragankorrek) sistemetako adizki jokatu trinko eta laguntzaile guztien kopuru bateratuak ikus ditzakegu.

Taula honetan argi dakusagu 2;03;09ko adineko grabaketan lehen eta hirugarren pertsonak berezten hasten dela, baina 2;04;24ko adinekotik aurrera zabaldu egiten dela erabilera hau singularreko zein pluraleko ia gramatika-pertsona guztietara.

## 5. TAULA

OITZ HAURRAK 3;00;10EKO ADINA DUEN ARTE EKOIZTEN DITUEN ADIZKI JOKATUAK  
KOPURUETAN

IRA GAN GAI TZA			IRA GAN KO RRA								
sing.	sing.	sing.	plur.	plur.	plur.	sing.	sing.	sing.	plur.	plur.	plur.
1.a	2.a	3.a	1.a	2.a	3.a	1.a	2.a	3.a	1.a	2.a	3.a
2;00;		5									
2;00;		7									
2;01;		5						11			
2;02;		31						4			
2;03;	3	27				3		3			
2;04;		18			1	2	1	2			
2;04;	3	1	46			2	1	9	2		
2;05;	1		54			1	13	8	25	5	2
2;05;	10	1	34			3	15	4	1	3	
2;06;			46			4	15	2	10		1
2;06;	1		45			5	11		17	1	
2;07;	5		34			6	21	1	9	1	1
2;08;	10	5	52	1		8	17	11	5		4
2;08;	1		18			6	11	7	9	3	
2;09;	7	2	73			6	12	11	17	4	2
2;10;	5		41	1		9	33	8	12	3	
2;10;		2	50			8	18	3	12	3	
2;11;		4	45			8	30	3	7	8	
3;00;	4		27	2		1	38	5	2		5

Halere, ez dugu pentsatu behar, behin halako formak erabiltzen hasten denean, beti erabiltzen dituenik. Hona hemen aldi honetako adizki jokaturik gabeko adibide batzu:

(38) zuk zer pentsau? (2;04;11)      (40) ba holan altxau nik eta ... (2;04;24)

(39) berak apurtu hori (2;04;11)

Behin adin honetatik aurrera pertsona-komunztadura hau beti edo ia beti zuzena dela esan dezakegu (akatsak ez dira sekulan %eko 10era helduko, ezta hurrik ere). Edozelan ere, hasieran bada errakuntza bat haur honen ekoizpenean, agian lexiko-arlokoa den arren. Hona hemen:

(41) ez dau gurozu kendu (2;05;25)

Argi dagoenez, *gurozu* hitza *gura dozu* da, baina haurrak *gura* hitzaren ordeztarabil. Hemendik aurrera ez dugu akats nabarmenik aurkitu arlo honetan.

Subjektuarekiko pertsona-komunztadura derakusaten adizkiak haurren ekoizpenetan Ezeizabarrenaren (1994) eta Barreñaren (1993) ikerlanetan ere lehenak agertzen direla ikus dezakegu. Izan ere ikertzaile hauek beste hiru haur elebidunen datuak azterturik gauza bera aurkitu dute.

### 3.5. Aditz-aspektuen agerkera

Atal honetan aditz jokaturigabeei eranstean zaizkien aspektu-markez zelan jabetzen den haur hau arakatzeari ekingo diogu. Gogoan izan behar dugu, lehenago ere esan dugunez, Lakarentzat (1988b) aspektua, nolabait, INFL-en barruko sintaxi-burua den arren, Arriagoitiarentzat (1992) aspektua eremu lexikokoa dela.

Ezaugarriarik gabeko aroa aurkeztean esan dugunez, hasiera-hasieratik erabili ditu haur honek aspektu burutuaren markaz osaturiko adibideak. Baina gure eritziz, erabilera kontrajarria<sup>20</sup> beharrezkoa da jabetasunaz hitzegin dezagun, bestelakoa erabilera unibertsala edo neutroa baita, eta lexikoaren jabetuntzari dagokio.

Aspektu burutugabea adierazten duen markaren lehen erabilera 2;03;09ko adina duen grabaketan ikus dezakegun bitartean, gertakizuna adierazten duen markaren lehen ekoizpenak ez ditugu 2;04;11ko adina duen arte ikusten. Hona hemen zenbait adibide gogotiar:

(42) halakue nun da(g)u?, sartuten da (2;03;09)

(43) bai kausten da (2;04;11)

(44) ez da kausten (2;04;11)

(45) ni(k) ez ikutuko oholak (2;04;11)

(46) ezebez emongo (2;04;24)

(47) garajie eingu dotsa(g)u(diogu) (2;04;24)

Hiru datu iruditzen zaizkigu azpimarragarri. Alde batetik, subjektuarekiko pertsona-komunztaduragaz batera hasten dela haur hau aspektu-marka ezberdinak erabiltzen, edo behar bada apur bat beluago<sup>21</sup>. Bestetik, goizago agertzen dela burutugabearen marka etorkizunarena baino<sup>22</sup>. Eta azkenik, hasiera baten ekoizten dituen gertakizuneko zein burutugabeko adibideetan, batzutan ez dela adizki jokaturik agertzen, geroago beti agertuko den arren.

Baina agerkera zehatzago erakusteko asmoz, eta adizki jokaturik gabeko aditz-multzoetan zelan ekoizten dituen aspektu ezberdinak ikus ditzagun, 6. taula prestatu dugu. Bertan adizki jokaturik gabeko edo jokatudun aditzak ezberdinu egin ditugu.

Adizki jokaturik gabekoetan hiru aldiz ekoizten du burutugabearen edo gertakizunaren aspektu-marka, eta hirurak ikus ditzakegu 2;04;11ko eta 2;04;24ko adina duenean. Ondoren behin ere ez. Halere, adizki jokaturik gabeko aspektu burutuaren markadunak ere gutxituz doaz adin honetatik aurrera.

(20) Arlo bereko bigarren forma ezberdinuaren erabilera gertatzeari deitzen diogu erabilera kontrajarria. Oitzek, orain arte, aditz-lexematzat aspektu burutuaren marka duen aditzak erabili ditu; soilik beste aspektu-markaren bat erabiltzean baieztatu dezakegu kontrajartasuna arlo honetan.

(21) Une honetan adibide bakar bat baino ez dakusagu eta.

(22) Halere, Barreñak (1993) erakusten duenez, berak aztertzen duen haur elebidunetarikoa batek jokabide berbera duen bitartean, besteak gertakizuna darabil burutugabea baino goizago. Ezeizabarrenak (1994) aztertzen dituen haur elebidun biengan ere jokabide ezberdinak ikus daitezke, hots, batak burutugabeak goizago darabiltzan bitartean, besteak gertakizunekoak lehenago ekoizten dituela.

## 6. TAULA

## ASPEKTU-MARKA EZBERDINEN ERABILERA OITZ HAURRAREN EKOIZPENEAN

	Adizki jokaturik gabekoak:				Adizki jokatudunak:			
	Guzt.	-tu	-tzen	-ko	Guzt.	-tu	-tzen	-ko
1;05;19	1	1						
1;06;22	3	3						
1;07;20	3	3						
1;08;29	3	3						
1;10;12	1	1						
1;11;05	11	11						
2;00;05	7	7			1	1		
2;00;26	2	2						
2;01;19	20	20			3	3		
2;02;00	34	34			3	3		
2;03;09	26	26			4	3	1	
2;04;11	21	19	1	1	6	4	2	
2;04;24	21	20		1	28	19	6	3
2;05;05	12	12			27	13	13	1
2;06;05	11	11			57	34	11	12
2;07;05	2	2			54	38	13	3
2;08;13	3	3			56	24	26	6
2;08;19	2	2			25	12	5	8
2;09;00	2	2			84	46	17	21
2;10;12					75	28	19	28
2;10;29	1	1			66	21	22	23
2;11;12					81	37	25	19
3;00;10	3	3			54	32	14	8

3.6. Ahalera moduaren erabilera<sup>23</sup>

Ezeztapena arakatu dugunean erakutsi dugun legez, *ezin* partikulaz osaturiko aditz-multzoak oso goiz ikus ditzakegu haur honen ekoizpenean, 1;10;12ko adina duenetik aurrera alegia. Halere, lehen forma hauek aditz jokatugabeekaz osaturikoak dira. Hona hemen Oitzek hasieran ekoitzi dituen adibideak:

(23) Modu legez atal honetan ulertzen duguna zehazteko, ikus Eguzkitza (1985, 1986, 1991b), *Mujika* (1988) eta Ormazabal (1993). Orohar, gure ustez, partikula-moeta bi ezberdindu beharko genituzke: *ahal/ezin* eta *behar/nabi*, hain zuzen ere.

## 7. TAULA

## EZIN PARTIKULAZ BURUTURIKO LEHEN ESALDIAK

- 1;10;12: ezin atara  
 1;11;05: ezin hartu; ezin ibili; ezin igon; Mikel(ek) ezin atara  
 2;00;05: ezin da; o(ra)intxe ezin da; gu(k) pianoa ezin jo  
 2;01;19: ezin atara Antonio(k); horti(k) ezin da  
 2;04;11: hau ezin da; ta ezin da ipini

Oitzek 2;00;05eko adina duen arte, gure ustez, ezin daiteke modu-aditzez hitze-  
gin, une horretara arte darabiltzan ezezko forma bakarrak, edo ia bakarrak baitira.

Haurrak 2,00;05eko adinera heltzen denean, ostera, lehen aldiz ikus dezakegu *ezin* adizki laguntzaile jokatu bategaz batera ekoitzia. Baina une honetatik 2;04;11ko grabaketara arte, ez du *ezin* partikula laguntzailatzat aditz-multzo baten ere erabil-  
tzen. Aldi honetan aditz jokatu gabe bategaz birritan ekoizten duen bitartean, hiru-  
tan ekoizten du *da* adizki trinkoagaz. Behin ere ez aditz-multzo perifrastiko baten.

Zertaz baliatu ote da haurra ekoizpen hauek gauzatzean? Gure ustez ezetzapenak  
bideratzen dion eraiketa gauzatzen du. Horrez gain, gure ustez, *ezin* aditz nagusi le-  
gez darabil une honetan. Edozelan ere, ez dirudi *ezin* partikula, aldi honetan, lagun-  
tzailatzat darabilenik. Ez du, beraz, moduaren jabekuntzarik oraingoz lortu.

Baina 2;04;11ko grabaketatik aurrera aurrerapen bat ikus dezakegu Oitzen kor-  
pusean. Hona hemen:

(48) ta ezin da ipini (2;04;11)

Ekoizpen honetan badirudi *ezin* partikula laguntzailea dela, aditz-multzoko hu-  
rrenkera-aldaketa ere egoki agertzen baitzaigu. Adin honetatik aurrera, lantzean  
behin, badarabil laguntzaile legez, beti aditz-multzoko hurrenkera-aldaketa eragi-  
nik. Hona hemen adibide bi:

(49) ezin da kabidu (2;05;21)      (50) hau ezin dotzet(diot) sartu (2;10;29)

*Ahal* partikula ere, hasieran, *ezin* partikularen egongune berean agertzen zaigu,  
aditz nagusia bailitza. Hona hemen lehen adibideak:

(51) bai ahal dau(du) (2;06;05)      (52) hemendik ahal jako(zaio) (2,08;13)

Segidan laguntzailatzat edo partikulatzat ikus dezakegu. Baina nabarmena da,  
*ezin* partikulak bezalaxe, aditz-multzoaren hurrenkera-aldaketa eragiten duela. Hona  
hemen zenbait adibide:

- (53) hankie ahal dot sartu (2;08;13)  
 (54) seguru, ahal jako(zaio) sartu (2;08;13)  
 (55) era hau be bai ahal da konpondu (2;10;29)  
 (56) iguel nire aitak ahalgo dau(du) sartu (2;10;29)



Interesgarria iruditzen zaigu azken adibide honetan *ahal* partikulari aspektu-marka eransten diola, aditz-nagusia bailitzan<sup>24</sup>, azpimarratzea.

Beranduago, 3;01;28ko adina duenean hain zuzen, *ahal* partikulaz osaturiko adibide baten aditz-multzoaren hurrenkera ez dela aldatzen eta partikula bera aditzaren eskuman agertzen dela ikus dezakegu. Halere, une honetan orain arteko erabilerari ere eusten dio, hots aditz-multzoaren barneko hurrenketa-aldaketari, *ahal* partikula ekoiztean. Hona hemen bietariko adibideak:

(57) hemen be ipini ahal dozu beste bat (3;01;28)

(58) iguel hemen ahal di(r)e sartu (3;01;28)

Une honetatik aurrera eta 4;00ko adina duen arte, aditz-multzoko hurrenkera-aldaketa lantzean behin gauzatzen ez badu ere, gehienetan gauzatzen duela ikus dezakegu. Hona hemen bietariko adibideak beranduago:

(59) bildurtu nahi badozu Batman, ba bildurtu ahal da (3;06;24)

(60) ama, kendu ahal dotzegu(diogu)? (3;06;24)

(61) garabio-kamioiek ahal dauela(duela) kendu e- garabixue! (3;11;25)

*Ahal* eta *ezin* partikulen bidez eraikitzen dituen modu-aditzak 2;04;11ko adinetik aurrera gauzatzeko gai dela esan dezakegula uste dugu, *ahal* partikularen lehen adibideak beranduago arte agertzen ez badira ere. Une honen aurretik, behintzat, ez dugu uste modutzat darabiltzanik.

Bestalde, *nabilgura* aditzen erabilerari ere interesgarria iruditzen zaigu. Ezezkotan ohizko hurrenkera gauzatzen badu ere, ezin esan gauza bera deklaratu arruntetako hurrenkeraz, zeinetan *nabilgura* aditz nagusi legez baitarabil. Konpara dezagun *behar* partikularen erabileraz. Hona hemen Oitzek ekoizten dituen lehenetariko adibideak:

(62) eta marrazki bat ein bi(behar) dot (2;05;21)

(63) etxe bat ein bi(behar) dogu guk (2;05;21)

(64) ez da bota biher(behar) (2;05;21)

(65) hau ez da hemen ipini biher(behar) (2;11;12)

(66) ez dozu nahi medikuenera juetie ala? (2;06;05)

(67) nahi dot ikusi zurekin gizon hori (2;06;25)

(68) nik gure dot juen ikastolara (3;02;10)

(69) ez dau(du) gure harrapatzie (2;07;05)

Hau guztiau ikusita zalantza bat sortzen zaigu. *Behar* partikulatzen darabilela argi dakusagun bitartean, aditz nagusiaren eskumatan ekoizten baitu ezezkotan ere;

(24) Oitz haurrak entzuren duen azpi-euskalkiaren arabera, *ezin* eta *ahal* partikulek, aspektu markaren bat hartzeko *izan* laguntzailea behar dute (*ezin izaten*, *ezin izango*, *ahal izaten*, *ahal izango*). Salbuespen bakarra *ezingo* forma da.

*ahal*, *ezin* eta *nabi/gura* hitzen erabilera nahasiagoa iruditzen zaigu. Hitz hauek aditz nagusiek hartzen duten tokia betetzeaz gainera, zenbaitetan aditz nagusia izan behar harko lukeenak menderagailua daroa (ikus (66) eta (69) adibideak), eta gainera, batzutan, *ahal* partikulak aspektu-marka ere hartzen du. Edozelan ere, helduen araberrako erabilera zuzena ere nabarmendu daiteke (*ezin*, 2;04;11ko adinetik aurrera; *ahal*, 3;01;28ko adinetik aurrera, baina ez beti; *gura/nabi*, 2;06;05-2;06;24ko adinetik aurrera; *behar*, 2;05;21ko adinetik aurrera). Guzti horregatik, ezin daiteke arlo honetako jabekuntza, gutxienez, 2;04;11ko adina duen arte baietsi.

### 3.7. Zehar-Osagarriarekiko Komuntzaduraren agerkeria

Aditz-komuntzaduraren arloko jabekuntzaren garapenean subjektuarekiko komuntzaduraren jabekuntzaren osteko hurrengo urratsa zehar-osagarriarekiko komuntzadura derakusaten adizkien erabilera da, eta berau 2;04;11ko adibide bakar eta isolatu batez gain 2;04;24ko adinekoan aurki dezakegu arakatu dugun haur honen korpusean.

Badirudi beste haur batzuren gain ez direla zehar-osagarriarekiko komuntzadura derakusaten adizkiak agertzen diren hurrengoak, osagarri zuzenarekiko komuntzadura erakusten dutenak lehenago agertzen baitira. Arlo honetan interesgarria izan daiteke Ezeizabarrenak (1994) eta Barreñak<sup>25</sup> (1993) eskaintzen dituzten datuen arteko konparaketa. Edozelan ere, gure datuen arabera Oitz haur elebakarrarengan zehar-osagarriarekiko komuntzadura derakusaten adizkiak goizago agertzen dira.

Gainera, agerkeria goiztiar honetan adizki laguntzaile iragankorrak zein iragan-gaitzak darabiltza haur elebakarrak. Hona hemen lehen adibideak:

- |   |                                     |
|---|-------------------------------------|
| (70) kausi jate(zait) (2;04;11)                         | (71) jausi ein jate(zait) (2;05;05) |
| (72) hemendik ahal jako(zaio) (2;09;00)                 |                                     |
| (73) beitu zelan mobitzen jakien(zaien)! (2;10;29)      |                                     |
| (74) garajie ingo dotza(g)u(diogu) (2;04;24)            |                                     |
| (75) ze bestela kenduko (do)zku(digu) (2;04;24)         |                                     |
| (76) hau nok apurtu dozte(dit) (2;05;05)                |                                     |
| (77) nik ingo (do)tzut(dizut) (2;06;05)                 |                                     |
| (78) ta nik ipiniko (do)tzet(diot) (2;06;05)            |                                     |
| (79) baina nik emongo dotziet(diet) (2;06;25)           |                                     |
| (80) ... ta zuk lagundu eiten doztezu(didazu) (2;07;05) |                                     |

Hasierako errakuntzaren bat izan ezik, erabilera egokia erakutsiko digu haur honen grabaketetan zehar. Eta gainera hasierako errakuntza azaltzeko arrazoirik bada-

(25) Ezeizabarrenak arakaturiko haur baten korpusean lehenago bildu ditu osagarri zuzenarekiko komuntzadura erakusten duten formak. Barreñak, oster, zehar-osagarriarekiko komuntzadura erakusten duten formak bildu ditu goizago hiru haurrengan.

go, grabaketako une horretan bere adineko jolaskide bategaz jostailu baten gora-beheran hasarre bizian baitago haurra. Hona hemen adibidea:

(81) honek(hauek) diez nik-, honek(hauek) nik ekarri dot, ama hori-, hori nik ekarri dozte(dit), nik (2;05;05)

Ingurua ikusirik *dozte(dit)* ekoitzi beharrean *dotzet(diot)* itxaron beharko genuke. Baina gorago ikusi dugunez, haurra hasarre eta artega ari da.

Oitz haurrak 3;00;10eko adina izaterakoan hainbat forma darabiltza: ikus 8. taulan une honera arte erabili dituenak. Bertan, forma ezberdinez gain, erabilera goiztiarrean haurrak duen adina eta hiru urtera arteko ekoizpen-kopuruak ere adierazten ditugu.

## 8. TAULA

OITZ HAURRAK DARABILTZAN ZEHAR-OSAGARRIAREKIKO PERTSONA-KOMUNZTADURA  
DERAKUSATEN ADIZKI-KOPURUAK 3;00;10EKO ADINA IZAN ARTE\*

Iragangaitzak:		Iragankorrak:	
jata/zait	8 (2;04;11)	dotzut/dizut	3 (2;06;05)
jako/zaio	7 (2;09;00)	dotzet/diot	10 (2;06;05)
jakie/zaie	1 (2;10;29)	dotziet/diet	1 (2;06;25)
jataz/zaizkit	2 (2;10;29)	dostazu/didazu	5 (2;07;05)
		dozte/dit	8 (2;05;05)
		dotzu/dizu	2 (3;00;10)
		dotze/dio	7 (2;08;13)
		dozku/digu	2 (2;04;24)
		dotzegu/diogu	2 (2;04;24)
		doztez/dizkit	1 (2;10;29)
		dotzeguz/dizkiogu	2 (2;11;12)
		dotzuten/nizun	1 (2;11;12)
		dozten/zidan	1 (2;11;12)
		dotzegun/genion	1 (2;09;00)

\* Adinak ekoizpen goiztiarrean adierazten digun bitartetan, zenbakiak 3;00;10eko adinera arte ekoiztiko kopurua eskaintzen digu.

Hau guztiau ikusirik, haur honek 2;04;24ko adinetik aurrera zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura erabiltzen hasten dela onetsi behar dugu.

Bestalde, pertsona-komunztaduraren arloan zehar-osagarriarekikoa dela subjektuarekikoaren ostean hurrek darabilten hurrengo Barreñak (1993) aztertzen dituen bi haur elebidunengan ere ikus dezakegu.

### 3.8. Konp egituraren erabilera

Oitzen korpua arakaturik, 2;04;24/2;05;05eko adinaz KONP funtzio-kategoria-  
ren erabileraren aldeko hainbat froga bil daiteke. Jarraian erakutsiko ditugun feno-

meno guzti hauek funtzio-kategoria hau une honetan erabiltzen hasi dela baieztatzen digute.

Une honetan, alde batetik, denboradun konplementagailuak ikus ditzakegu. Gainera, konplementagailu hauen erabilera guztiz hedatuko da hurrengo grabaketetan zehar. Hona hemen hasierako ekoizpenak:

(82) hori zurie izen dala (2;04;24)                      (83) bakarrik egon dala (2;04;24)

(84) beitu hemen hemen hemen, txikie da ta! (2;04;24)

Konplementagailu denboradunetz gain, 2;05;05eko grabaketan lehen aldiz ikus dezakegu *egin* aditza laguntzaile legez, galdegaitu duen aditzaren ordean hain zuzen. Hona hemen adibideak:

(85) jausi e(g)in da hara behera (2;05;05)

(86) hau bota e(g)in bi(behar) dot (2;05;05)

(87) jausi e(g)in jate(zait) (2;05;05)

NZ-perpausetan ezkerretara aurreratutako NZ-hitzak ere une honetan ikus ditzakegu lehen aldiz. Hona hemen lehen adibideak:

(88) nok apurtu dau(du) holakue? (2;04;24)

(89) nun da(g)u nire zaldie? (2;05;05)

Guzti hauez gain, une honetan ikus ditzakegu lehen aldiz ezezko aditz-multzoetan ezertapenak eta adizki jokatuak osatzen duten multzoak aditz nagusia eta esaldiko beste osagaien bat aurreratzen duteneko ekoizpenak. Hona hemen:

(90) ez da biziketa kausiko (2;05;05)

(91) nik ez dot manra bat hartu (2;06;05)

Guzti honegatik, eta Ortiz de Urbinak (1988) dioenaren arabera, KONP funtzio-kategoriaren egitura Oitz une honetan hasten dela erabiltzen uste dugu<sup>26</sup>.

### 3.9. Osagarri Zuzenarekiko Komunztaduraren agerkeria

Osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera baieztatzeko, lehenago ere esan dugun legez, pertsona ezberdinei dagozkien adizkien erabilera kontrajarria ikusi beharko dugu. Gauza jakina da NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK, hots, aditz-sistema iragankorrak erabiltzean osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura ere agertzen zaigula<sup>27</sup>. Baina ikusi ahal izan dugun legez, hasieran behinik behin, singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizkiak dira haur honek darabiltzan bakarrak.

(26) Daru zehatzagoak aurkitzeko, ikus Barreña (1993, 1994) eta Mahlau (1994).

(27) Beste interpretazio baterako, ikus Oyarçabal (1992) edo Addis (1993), esaterako.

Haurrak 2;06;05eko adina duenean, ostera, moeta honetako pluraleko lehen adizkiak hasten da erabiltzen. Halere, nabaria da sarritan pluraleko adizkiaren ordezt singularrekoa darabilela. Arazo hau hobeto ikusteko, 9. taulan pluraleko hirugarren pertsonari legokion adizkiren bat eskatzen duten inguruetan haur honek nolako formak darabiltzan erakutsiko dugu.

### 9. TAULA

PLURALEKO HIRUGARREN PERTSONARI LEGOKION ADIZKIREN BAT ESKATZEN DUTEN  
INGURUAK OITZ HAURRAREN EKOIZPENEAN

	Guztira	Pluraleko formaren erabilera	Singularreko formaren erabilera	Pluralaren gehiegizko erabilera
2;05;05	1		1	
2;06;05	3	2	1	
2;06;25	1	-	1	
2;08;13	3	3	-	
2;08;19	1	1	-	
2;09;00	5	4	-	1
2;10;12	7	7	-	
2;11;12	14	13	1 <sup>28</sup>	
3;00;10	3	3	-	

Hona hemen Oitzek darabiltzan halako lehenetariko adibide batzu:

- (92) zuk honek bota dozuz(dituzu) (2;06;05)
- (93) bota e(g)in dauz(ditu) hona (2;06;05)
- (94) holan altxatzen dauz(ditu) (2;08;13)
- (95) nik ez dekotez(dauzkat) (2;08;13)
- (96) ipurdikuek e(g)ingo doguz(ditugu) (2;09;00)
- (97) eingo doguz(ditugu) buruz- ipurdikuek? (2;10;12)
- (98) bi daukaguz(dauzkagu) (2;10;12)
- (99) kendu doztez(dizkit) nire kotxiek (2;10;29)
- (100) honek be(ere) ipini e(g)in bi(bihar) dotzeguz(dizkiogu) (2;11;12)
- (101) hemen erueten zabiezen(zituzten) pistolak eta halako gauzak (2;11;12)

Gorago ikusi dugunez, adibide bakar batzutan, aldiz, pertsona-komunztadura okerra ere badarabil, hots, singularreko pertsonari dagokion adizkia pluraleko pertsonari dagokionaren ordezt. Hona hemen halako ekoizpen batzu:

(28) Adibide hau Oitzek berehala zuzentzen du, eta itxaron zirekeen adizki-forma darabil jarraian.

(102) ekarri dozunak(duzunak)? (2;06;05)

(103) ez dabez(dituzte) e(g)in etxie (2;09;00)

(104) ze kamioiak hau bota bi(behar) dauz(ditu) (2;10;29)

Beste behin Oitz haurrak bere burua zuzentzen duela dirudi:

(105) hor be(ere) zelan dekokun(daukagun) errobedak eta zelan dekokuzen(dauzkagun) errobedak (2;11;12)

Haurrak darabiltzan pluraleko hirugarren gramatika-pertsonari dagozkion adizkiak bilduz 10. taula osatu dugu. Berton hiru urtera arteko ekoizpenez gain ekoizpen-kopuruak ere adierazten ditugu.

## 10. TAULA

HIRU URTE BITARTEKO PLURALEKO HIRUGARREN PERTSONAREN OSAGARRI ZUZENAREKIKO KOMUNZTADURA DERAKUSAN ADIZKI-KOPURUAK

do(t)az/ditut	9	doztez/dizkit	1
dozuz/dituzu	2	dotzeguz/dizkiogu	2
dauz/ditu	5	deka(t)az/dauzkat	1
doguz/ditugu	16	dekoz/dauzka	1
dabiez/dituzte	4	dekokuz/dauzkagu	2
(z)abiezen/zituzten	3		

Hau guztiau, aurrerago ere esan dugunez, hirugarren pertsonaren arloan gertatzen da, singularrak eta pluralak bereziz. Alabaina, zer gertatzen da osagarri zuzena lehen edo bigarren pertsona denean?

Haurrak, guk aztertu dugun korpusean behintzat, osagarri zuzena lehen edo bigarren pertsona denean, ez du adizki zuzenik erabiltzen. Halako egoeretan, badirudi NOR-NORI-NORK sistemako adizkiak NOR-NORK sistemakoek ordez darabiltzala. Hona hemen zenbait adibide:

(106) Jurgik jo dozte(dit) (2;09;00)

(107) ez dotzet(diot) ikusiko Jurgiri (2;10;12)

*Jo* eta *ikus*i aditzekaz, ostera, osagarri zuzena hirugarren pertsona denean, adizki zuzenak darabiltza haurrak, hots NOR-NORK sistimakoak. Hona hemen adibide batzu:

(108) ikusi e(g)ingo dogu saltarzen (2;09;00)

(109) eta ikusiko dozu zelan joten doten(dudan) (2;10;12)

(110) behin ikusi dogun (2;11;12)                      (111) holan joko dotela (2;11;12)

(112) ez dau(du) joten Marikarmenek (2;11;12)

Halere, bada haur honen ekoizpenean lehen pertsonaren adibide bat. Ikus dezagun inguru eta guzti:

- (113) (Mintzaide heldua orein-burruka bat kontatzen ari zaio ipuin batetik, eta kontaketa erenik, ondoko elkarrizketa sortzen da)  
 Mintzaide heldua: Zuk be burrukan egiten dozu Jurgigaz ezta? Zelan egiten dozu burrukan Jurgigaz ba?  
 Oitz haurra: holan, hhauh!  
 Mintzaide heldua: Zezenen moduan?  
 Oitz haurra: bai  
 Mintzaide heldua: Zelan ipintzen zara ba?  
 Oitz haurra: joten nau holan ta, hartzen dot eta arineketa baten ta eperditik sartzen dotzet(diot) (3;09;11)

Hau guztiau ikusirik, badirudi osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura derakusaten adizkiak gauzatzean, une batetik aurrera, pluraleko eta singularreko hirugarren pertsonen dagozkien adizkiak baino ez dituela berezten.

Lehen pertsonari dagokion adibidea beranduagokoa da, eta bere gurasoen ekinaren emaitza dela ere pentsa daitekeen arren, hori ez da nabaritzen ekoizpenaren unean.

Oitzek 3;09;11ko adina duen arte osagarri zuzenarekiko komunztaduraren arloan ez dugu pertsonak ezberdintzen dituen aldeko frogarik, numeroa baino ez baitugu berezirik aurkitu. Ikertzaileen artean eritzi kontrajarriak daude fenomeno honen inguruan, eta horrela, batzuren ustez pertsonak ezberdintzea beharrezkoa den bitartean jabekuntzaz iharduteko (ikus Meisel 1994a), beste batzurentzat pertsonaren ezaugarria berdina da subjektu-komunztaduraren buruan (KMZ-S) eta osagarri-komunztaduraren (KMZ-O) (ikus Mendikoetxea 1992)<sup>29</sup>, eta beraz, jabekuntza baiets daiteke.

Edozelan ere, argi dago pertsona-komunztaduraren arloan, osagarri zuzenari dagokion komunztadura azkena dela agertzen, eta gauza bera gertatzen da Barreñak (1993) ikertu dituen haur elebidun bien korpusetan.

### 3.10. Aditz-denboraren erabilera

Orain arte, guk arakatu dugun korpusean, orainaldiko adizkiak baino ez ditugu ikusi, baina 2;07;05eko adina duenetik aurrera iraganeko adizkiak ere agertzen zaizkigu. Hona hemen lehenetariko zenbait adibide:

- (114) otso bat etorri zan eta jan e(g)in zuen (2;07;05)  
 (115) ba ba gero ehiztari bat etorri zan eta han itxi zuen (2;07;05)  
 (116) Tximino Gorri juen zan e azokara ta ja amatxo nahi abala(zuela) eta esan dotzen(dion) (2;07;05)  
 (117) Andoni, holakueta Larraitzekin ibili nintzen, holakueta (2;08;13)  
 (118) nik hemen e(g)in doten lo (2;09;00)  
 (119) gainien e(g)in aben(zuen) lo (2;09;00)

(29) Mendikoetxearen lan honetan KMZ-O buruak pertsona. numeroa eta generoa ezaugarri gisa dauzkala irakur daiteke.

(120) hemen egon zan txupetie ta hemen sakatzen otzegun(diogun) (2;09;00)

(121) ba atzo ikusi genuena telebistan (2;10;12)

(122) hemen erueten zabiezen(zituzten) pistolak eta halako gauzak, bale? (2;11;12)

Haur honek 3;00;10eko adina duen arte darabiltzan formak zeintzu diren ikusteko 11. eta 12. tauletara jo daiteke. Grabaketaz grabaketa ekoizten dituen forma ezberdinak eta kopuruak 11. taulan aurkezten ditugun bitartean, 12. taulan 3;00;10eko adina duen arte darabiltzan forma ezberdinak aurki ditzakegu.

## 11. TAULA

OITZ HAURRAK HIRU URTERA ARTEKO KORPUSEAN DARABILTZAN IRAGANALDIKO  
ADIZKIAK GRABAKETAZ GRABAKETA ETA KOPURUKA

2;07;05	zan	zuen	abela	otzen		
	9	5	1	1		
2;08;13	nintzen	zan	aben	zaben	otzen	otzegun
	3	1	3	1	1	1
2;08;19	zan					
	1					
2;09;00	nintzen	zan	aben	zaben	otzen	otzegun
	1	6	3	1	1	1
2;10;12	zan	ziren	naben	genuena	ozun	
	3	7	1	1	1	
2;10;29	zan	ziren	zaben			
	3	1	3			
2;11;12	zan	ziren	zabiezen	ozten	otzuten	
	4	1	2	1	1	
3;00;10	nintzen	zan	ziren	abela		
	1	9	1	1		

Iraganeko adizkien erabilera dela eta interesgarria iruditzen zaigu ondoko oharrak egitea:

– Alde batetik iragantasanaren morfema *-n* dela aise bereganatu duela esan dezakegu, argia baita sarritan orainaldiko adizkiari marka hori erantsiz egiten dituela iraganak.

Zehatzago esanik: NOR sistimako adizkiak beti darabiltza arauaren arabera; NOR-NORK sistimako adizkiak era bitakoak dira, arauaren arabera iraganak edo *-n* marka erantsitako orainaldiak; NOR-NORI-NORK sistimako adizki guztiak *-n* morfema erantsitako orainaldiak dira; NOR-NORI sistimakorik ez du ekoitzi, baina kontutan izan behariko genduke bizkaieraren arauaren arabera iraganeko adizkiak eraikitzeke orainaldiko adizkiei *-n* morfema baino ez zaiela atxikitzen<sup>30</sup>.

(30) Orainaldiko *jat*, *jatzu*, *jako*, *jaku*,... iraganean *jatan*, *jatzun*, *jakon*, *jakun*,... bihurtzen dira. Honez gain, zeresan handia izanenez eguneroko hizkeraren iraganeko formak aztertuz gero, jakina baita inguru askotan iraganak orainaldiko formei *-n* marka atxikirik egiten direla.



– Bestetik, ikusgarria da NOR-NORK sistemako 3. pertsoneri dagozkien formei eransten dien *z-*. Jakina da bizkaieraz, adizki hauek *eban, ebazan, eben, ...* direla, baina haur honek forma hauei askotan estandarreko adizkiek duten *z-* morfema eransten die.

– Azkenik, sarritan eta une berean, NOR-NORK sistemako iraganeko adizkiak erabiltzean pertsona berari dagozkion bi edo hiru forma ezberdin darabiltzala, hara nola, *aben, zaben eta zuen*.

Edozelan ere, 2,07;05eko adina duenean nabaria da aditz-denbora edo tempusaren erabilera zuzena haur honen korpusean.

## 12. TAULA

### OITZ HAURRAK HIRU URTERA ARTE DARABILTZAN IRAGANALDIKO ADIZKI JOKATU EZBERDINEN ZERRENDA SISTEMAZ SISTEMA

NOR: nintzen, zan, ziren

NOR-NORK: naben/(d)oten, (d)ozun, zuen/aben/zaben, (d)ogun/genuen, zabiezen

NOR-NORI-NORK: (d)otzen(zion), (d)otzegun(genion), (d)otzuten(nizun), (d)ozten(zidan)

### 3.11. Aditz-moduaren agerkeria

Bestalde, arakatu dugun korpusean indikatiboz gaineko beste moduetako adizkiak ere ikus ditzakegu. Orain arte erakutsi ditugun adibide guztiak indikatibo-moduari dagozkionak izan dira, edo batzutan *ezin* eta *ahal* partikulez indikatiboko adizki horiek aldatzen ahalegindu dela ikusi dugu.

Azpiatal honetan indikatiboaz gaineko beste moduetako adizkien erabilera aztertzeari lotuko gataizkio. Hala ere, haurrak ekoizten dituen adibideak oso gutxi dira, *goazen* adizki trinkoaz gain. *Goazen* adizkia oso goiz eta sarri darabil haur honek, baina gure ustez, erabilera hau, hasieran behintzat lexikoaren arloko jabekuntzari dagokio. Aditz-moduaren gramatika-jabekuntza baieztatzeko beste adibideak aurkitu beharko ditugula uste dugu. Edozelan ere, hona hemen *goazen* adizkiaren osaturiko adibide goiztiar bitzu:

(123) Mikel guazen! (1;11;05)

(124) guazen Amaia (2;02;00)

Hauetz gain, bildu ditugun lehenetariko adibideak 2;10;12ko adinaz geroakoak dira. Hona hemen:

(125) sartuko naz hemen Jurgik ez dozten(didan) ikusi (2;10;12)

(126) obatu e(g)iozu hankiari (2;11;12)

Oitz haurrak subjuntiboko lehenengo adizkia darabilenean, indikatiboko adizkiari *-n* marka eransten diola ikus dezakegu. Halere, egokia da *-n* markaren subjuntibotasuna, eta seguruenik berau izango da arlo honetako jabekuntzaren eragingarria. Beste gauza bat da, ekoizpen honetan, lehenago ere azaldu dugun legez, NOR-NORK sistemako adizkia erabili beharrean NOR-NORI-NORK sistimakoa darabilela.

Edozelan ere, subjunktiboaren erabileraren aldeko froga 3;01;28ko adinaz bertatu egiten da haur honen korpusean. Hona hemen adibideak:

(127) Batman ipini (d)ot ez daiten(dadin) jausi (3;01;28)

(128) ba nik ez dot gure holan ibili gaitezen (3;01;28)

Une honetan agintera-modu bereziaren erabilera ere, adizki laguntzaileen edo trinkoen bidez burutzen dena alegia, aurki dezakegu. Hona hemen adibideok:

(129) hori, e(g)izu geriza, mahatsa urtetako! (3;01;28)

(130) o(ra)in zuk e(g)iozu holan puntatxue (3;01;28)

(131) e(g)iozu hemen punta (3;01;28)

(132) ama, emoiozu eperdiko bat (3;07;23)

(133) anbulantzia, etorri zaitetz, ze Isidoro da(g)u gaiso- Superisidoro da(g)u gaisorik (3;07;23)

Badirudi, beraz, 2;10;12ko adina duelarik aditz-modu ezberdinen jabekuntza burutzen hasten dela<sup>31</sup>.

Aditz-moduaren jabekuntza, komunztaduraren eta aditz-denboraren ostean gertatzen da. Gauza bera ikus dezakegu Barreñak (1993) arakaturiko haur elebidun baten korpusean, beste haur elebidunak ez baitu korpus arakatuan indikatiboaz gaineko beste moduetako adibiderik ekoizten 4;00ko adina duen arte.

#### 4. Laburbilketa eta proposamenak

Aurreko datuak ikusirik, gramatika-ezaugarririk gabeko aro goiztiarraren izaera nabaria gertatzen dela esan dezakegu. Bada, beraz, aro auresintaktiko bat Oitz haurraren ekoizpenean. Jarraian, haurrak, gramatika-ezaugarriez bideraturik hasiko da bere ahozko ekoizpena gauzatzen.

Alabaina, Oitz haurrak Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoari heltzen dionean, gramatikaren erabilera ez da bapatean gertatzen, era mailakatuan baino.

Baina hemen lehen itaunak sortzen zaizkigu: zelan gauzatzen du mailaketa? Zergatik hurrenkera horretan?

Lehenago esan dugunez, haurrek erakusten duten garabide mailakatu hau perpausak berak duen egitura hierarkikoak bidera dezakeela uste dute hainbat ikertzailek. Baina ikus dezagun lehenago Oitzek gauzatzen duen erabilera-hurrenkera (ikus 13. taula), gure datuen arabera behinik behin.

(31) Halere, subjunktiboaren -n marka menderakuntza baino ez dela eta modurik adierazten ez duela ere pentsa daiteke (ikus Joppen 1994).

## 13. TAULA

## OITZ HAURRAREN JABEKUNTZA-URRATSAK

- 1;05;19 - 1;11;05: gramatika-ezaugarririk gabeko aroa
- 2;00;05: adizki trinko/laguntzaileen berezketa
- 2;00;05: ezeztapena eta baieztapena biltzen dituen kategoriaren erabilera
- 2;02;00/2;03;19: subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera
- 2;03;19/2;04;11: aditz-aspektu ezberdinen agerrera
- 2;04;11: moduaren agerrera
- 2;04;24: zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera
- 2;04;24/2;05;05: KONP egituraren erabilera
- 2;06;05: osagarri zuzenarekiko komunztaduraren erabilera
- 2;07;05: aditz-denboraren agerrera
- 2;10;12: aditz-moduaren agerrera

Lehen urratsean, hots, 1;05;19 - 1;11;05 aldian, nabarmena da Oitzek ez duela inolako gramatika-ezaugarririk erabiltzen. Baina gure ustez, bada aldi honetan beste berezitasun azpimarragarri bat, mintzagai-galdegai bezala har dezakegun osagai-hurrenkeraren gauzatzea, alegia. Hurrenkera hau ez dugu uste aldi honetan beti burutzen duenik, sarritan baino. Ez ote da haurra, aldi honetan, lexikoa bereganatzen duen bitartean, euskara mintzatu hain nabarmena den mintzagai-galdegai hurrenkeraz jabetzen ari?

Euskararen egitura hau nabarmena dela hizkuntzalari askok azpimarratu dute, eta banaka batzuk euskararen berezitasun garrantzitsutzat ere jo dute (ikus, adibidez, Bretschneider 1978). Ez ote dira hurrek erabilera honetaz oso goiz konturatuko eta euren ekoizpenean isladatuko?

Hurrek, Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoek eskaintzen dien aukera ezberdinen gauzatzea eurek ikasten diharduten hizkuntzara egokitzean, hizkuntza horretako zenbait elementu eragingarrien eraginez egiten dutela oso eritzi zabaldua da ikertzaileen artean. Gizakiok, hizkuntza-esperientziaz kanpo, badugu sortzetikako hizkuntza-ahalmena, baina berau hizkuntza zehatz baten gauza dadin, aukera parametrizatu egokia hautatu behar dugu, eta hautaketa hori errazteko hizkuntzetan elementu bultzatzaile eta bizkortzaileak daudela uste izan da. Baina pentsa dezakegu, baita ere, elementu eragingarri zehatzen orde, hurrek ikasten ari diren hizkuntzaren berezitasun behinenez konturaturik hasten direla gramatikaz jabetzen. Esan gura duguna zera da: ikasten diharduten hizkuntzaren berezitasun kontrajarriez, hurrenkera-aldaketa nabarmenez eta gramatika-ezaugarri azpimarragarrienez ohartuko direla lehenago, eta beharbada, berauek hasiko direla goizago erabiltzen.

Uste honetatik abiatuz, ez da harriztekoa, itxarongarria baino, ezeztapenak eragiten duen hurrenkera-aldaketa kontutan izanik, hurrek ezeztapenetik abiatzea euskararen egitura ikasterakoan.

Antzeko zerbait esan dezakegu aditz-multzoko ezaugarriez, oso nabaria izan baitaitezke haurrarentzat aditz nagusi eta laguntzaileen izaera eta forma ezberdinak. Eta horrela, hurrak oraindik aditz-lexemak baino ez dituenean ekoizten, ezaugarri honetaz konturatzean, aditz laguntzaileen erabilera aditz lexematik berezten du, eta

urrats berri bat gauzatzen du bere jabekuntza-garapenean. Une honetan haurrak adizki trinkoak eta laguntzaileak bereziz, nolabait, orain arte erabili dituen aditz-lexemez gaineko jabekuntza bereganatu du.

Horrela, Oitzek, ezeztapena eta baieztapena biltzen dituen kategoria hasten da oso goiz erabiltzen. Guk bildu ditugun datuen arabera, gainera, une berean hasten da aditz laguntzaileak eta trinkoak bereziten, eta beraz, aditz-lexemak. Guzti hauez gain, une berean hasten da gramatika-kasuak, izen-sintagma-mugaketa ezberdinak eta menderagailu denboragabeak erabiltzen (ikus Barreña 1993 eta agertzeko).

Baina zeri ote dagokio haur euskaldun honek burutzen duen aditz-arloko lehen berezketa hau? Oraindik ez du komuntzadurarik isladatzen, baina nolabaiteko aditz-berezketa egiten du. INFL-en mugatasunaren erabilera ote? Lehenago ikusi dugunez, zenbait ikertzailek (ikus Meisel 1994a, adibidez), mugatasuna subjektuarekiko komuntzadurarekin edo aditz-denboraren erabilerarekin lotu behar dela dio. Edozelan ere, pentsagarria da INFL-en arloko ezaugarriren baten ondorioa dela haurrak burutzen duen jabekuntza hau.

Gure ustez, bada, ezeztapena eta baieztapena biltzen dituen kategoria eta INFL-en oinarrizko lehen ezaugarri honi dagokion egitura (mugatasuna beharbada), Oitz, guk ditugun datuen arabera, une berean hasten da erabiltzen.

Ez dugu uste, Meisel-ek (1994b) dioen arabera, ezeztapena 1;11;05eko adina duenean erabiltzeko KONP egituraren beharra duenik. Ezta ere modu-aditzik une honetan darabilenik. Gure ustez ezeztapenak isladatzen duen egitura 2;00;05eko adinaz hasten da haur hau erabiltzen, ezeztaturiko aditz-multzoak esaldiaren eskumataz aurreratzen hasten denean eta ez ezeztapen-partikulak aditz jokarugabeen ezkerretan agertzen direnean.

Moduaren jabekuntza une goiztiar honetan lortzen duenik ere ez dugu ikusten; eta ez gatoz, beraz, Meisel-egaz bat. Ez dugu uste haur honek urte bi izan aurretik *ezin* partikulaz gauzatzen dituen ekoizpenek moduaren jabekuntza erakusten dutenik (ikus 3.6. ataleko adibideak). Gure eritziz ekoizpen goiztiar hauek ezeztapenaren ingurukoak baino ez dira, baina mintzagai-galdegai hatsarre semantiko-pragmatikoaz eraikitako ezeztapenak, hain zuzen. Beranduago, *ezin* eta *abal* adizki laguntzaileekaz erabiltzen hasten denean, aditz nagusi gisa darabiltzala iruditzen zaigu. Jarraian, partikula hauek, adizki laguntzaileez gain, beste aditzekaz batera erabiltzen hasten denean (2;04;11ko adinaz hain zuzen) moduaren jabekuntzaz hitzegin dezakegu. Nolanahi ere, datuak ez daude hain garbi. Azken eritzi honen aldeko zioak honako hauek ditugu: aditz nagusien egongune bera betetzen dutela; aspektu-markak ere hartzen dituztela; eta batzutan, aditz nagusia izan beharko lukeena, menderagailu eta guzti, mendekotzat hartzen duela.

Ezeztapena eta baieztapena biltzen dituen balizko kategoriaren jabekuntzaren ondoren, hurrego urratsa, beraz, INFL-en arloko subjektuaren komuntzadurari dagokio. Subjektuak, hainbat hizkuntzatan, aditzei eragiten dien aldaketak edo komuntzadurak, haurrek ikasten dituzten lehenetarikoak izaten dira, eta euskaraz ere antzera gertatzen da. Alabaina, subjektuaren ondoren zehar-osagarriarena da Oitzek darabilen hurrengoa.

KONP funtzio-kategoriaren jabekuntza zehar-osagarriarekiko komunztaduraz batera ikus dezakegu Oitzen korpusean. Azpimarragarria iruditzen zaigu KONP-en egituraren erabilera INFL-eko osagarri zuzenarekiko komunztadura eta aditz-denbora baino lehenago gertatzea, gure datuen arabera behinik behin. Edozelan ere, nabarmena da 2;04;24/2;05;05eko adinaz haur hau KONP funtzio-kategoriaz jabetu dela. Une honetan ikus ditzakegu lehen aldiz konplementagailuak eta esaldiaren ezkerretara aurreraturiko NZ-hitzak, galdegaiak eta ezezko esaldietako ezeztapenek adizki jokatuak osatzen dituzten multzoak (ikus Barreña 1993 eta 1994).

Osagarri zuzenaren komunztadura beranduago agertzeak (2;06;05eko adinaz ikus ditzakegu lehen adibideak) badu muga argi bat: hirugarren pertsona singularrak eta pluralak bereztearena, alegia. Oitzek lehen pertsonari dagokion erabilera goiztiarra 3;09;11ko adinaz gauzatzen du, grabaketen korpusari dagokionez behinik behin. Baliteke haurrak komunztadura-moeta hau gutxiagotan entzutea, edo intentsitate gutxiagorekin behintzat. Izan ere hori izan daiteke komunztadura-arloan azkena agertzearen aldeko zioa, eta hein baten KONP-en egituraren ostean erabiltzearen arrazoia ere.

Oitzen ekoizpenean, beraz, pertsona-komunztaduraren arloan hurrenkera zehatza gertatzen dela esan dezakegu: subjektuarena, zehar-osagarriarena eta osagarri zuzenarena. Garapen-hurrenkera bera jarraitzen dute Barreñak (1993) arakaturiko haur elebidun biek ere komunztaduraren arloan.

Hurrengo urratsa aditz-denboraren jabekuntza da. Oitzek jabekuntza-moeta hau 2;07;05eko adinaz erdiesten duela dirudi. Argi dago komunztaduraren ostean egiten duela eta argi dago, baita ere, KONP-en jabekuntzaren ostean erdiesten duela berau.

Aditz-moduaren jabekuntza, subjunktiboari dagokiona behinik behin, 2;10;12ko adinaz bereganatzen du Oitzek. Lehenago esan dugunez, ez dugu oso argi noiz lortzen duen moduaren jabekuntza, baina 2;04;11ko adina izan daiteke unerik goiztiarra. Subjunktiboarena hain berandu ekoizten hasteak badu arrazoi bat gure ikuspuntutik: morfema berbera erabiltzen dela iraganak zein subjunktiboak lortzeko. Zein darabil haurrak lehenago? Dudarik gabe, sarriagotan entzuten duena: iragana. Kontutan izan behar dugu, gainera, lehen subjunktiboa eraikitzean indikatiboko adizkera bati erantsitako *-n* morfema gauzatzen duela.

Barreñaren (1993) datuetan ikus daitekeenez, berak aztertzen dituen haur elebidunek aditz-denbora zenbait komunztadura-moeta baino lehenago darabilte. Horrela elebidunetarikoa batek adizki iraganak zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusatzen adizkien ondoren baina osagarri-zuzenarekiko komunztadura derakusatzen baino lehenago darabiltzan bitartean, beste haur elebidunak iraganak hasten da erabiltzen bi komunztadura-moeta horietako adizkiak baino goizago.

Honaino helduta, demagun Oitzek burutzen duen jabekuntza-hurrenkera honako hau dela: mintzagai-galdegai hurrenkera, ezeztapena eta baieztapena biltzen dituen kategoria eta INFL-en oinarria edo mugatasuna, subjektuarekiko pertsona-komunztadura, zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura, KONP funtzio-kategoria, osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura eta aditz-denbora. Hauei, aspektuarena eta moduarena erants diezazkiekegu (biak subjektuarekiko komunztaduraren ostean). Alabaina, zergatik burutzen ote du haur honek jabekuntza-hu-

rrenkera hau? Haur guztiek jabekuntza-hurrenkera bera garatuko ote dute? Nola liteke jabekuntza-hurrenkera hau betetzea euskararen perpausaren egituraren arabera?

Bigarren galderari ihardetsiz, baiezkotan gaude. Ezberdintasunak zehar-osagarriarekiko eta osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadurak beranduxeago agertzean leudeke, eta agian aditz-denboraren kategoriarena. Baina orohar, hurrenkera bera gertatzen dela ikus dezakegu (ikus Barreña 1993).

Lehenengo eta azkenengo galderei erantzuterakoan eragozpen antzerakoekaz aurkitzen gara. Ikasten ari diren hizkuntzak duen perpausaren egitura hierarkikoak bideraturiko jabekuntza-garapena jarraitzen al dute haurrek? Ala, ostera, ikasten diharduten hizkuntzaren berezitasuen kontrajarrieneratik hasten dute delako garabide hau?

Pentsatuz aukera bi hauek ezberdinak direla, bigarrena jarraitzen badute, zelan txertatzen dituzte ezagupen berriak aurretik dituztenetan eta ikasten ari diren hizkuntzaren perpausaren egitura orokorrean? Galdera honi erantzutekorik oraingoz ez badugu ere, badugu nolabaiteko txertaketaren aldeko froga. Lehenago esan dugunez, hasieran Oitz ezeztapena eta baieztapena biltzen dituen kategoriaz jabetzen da eta lau edo bost hilabete beranduago KONP kategoriaz. Baina haurrak, KONP kategorია erabiltzen hasten denean, ezeko esaldien aniztasuna zabaldu egiten du, eta nabaria da une honetan ezeztapenak eta adizki jokatuak osatzen duten bikoteak aditz nagusia ez ezik, subjektua eta osagarri zuzena ere aurreratzen dituela (ikus (90) eta (91) adibideak), batzutan behintzat. Badirudi, beraz, hasierako ezeztapen-egitura, KONP funtzio-kategoriari dagokion egitura erabiltzen hastean, bigarren honetan txertatu egin dela, ikasten diharduen hizkuntzaren perpausaren egituraren arabera.

## Bibliografia

- Addis, K., 1993, "Paradigm trimming in Basque". *Linguistics* 31. 431-474.
- Aldridge, M., 1986, "A first stage in the acquisition of INFL". *Research Papers in Linguistics*, 1. 39-58.
- Artiagoitia, X., 1992, *Verbal projections in Basque and minimal structure*. University of Washington: doktorego-tesia. (ASJU 26:2, 1994-n argitaratua).
- Barreña, A., 1993, *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz: doktorego-tesia.
- , 1994, "Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos". J. Meisel (arg.): *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt, 231-284.
- , (agertzeko), "Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun". M. Etxebarria, I. Idiazabal & J. Tynan (arg.): *Lingüística aplicada a la enseñanza de las lenguas*. EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Bickerton, D., 1991, "Syntactic development: the brain just does it". University of Hawai at Manoa: eskuizkribua.
- Brown, R., 1976, *A first language. The early stages*. Harvard University Press: Cambridge.
- Brettschneider, G., 198, "Typological characteristics of Basque". Plank (arg.): *Ergativity*. Academic Press: New York, 371-384.

- Chomsky, N., 1981, *Lectures on government and binding. The Pisa Lectures*. Foris: Dordrecht.
- , 1989, "Some notes on economy of derivation and representation". *MIT Working Papers in Linguistics* 10, 417-454.
- , 1992a, "Some notes on economy of derivation and representation". J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.): *Syntactic theory and Basque syntax*. Gipuzkoako Foru Aldundia. "ASJU-ren Gehigarriak": Donostia, 53-82.
- , 1992b, "A Minimalist Program for linguistic theory". *MIT Occasional Papers in Linguistics* 1, 1-73.
- Déprez, V. & Pierce, A., 1993, "Negation and functional projections in early grammar". 24-1, 25-67.
- Eguzkitza, A., 1985, "Aditz modalak euskaraz". *Euskera* XXX-1 (2. aldia), 215-221
- , 1986, *Topics in the syntax of Basque and Romance*. UCLA PhD dissertation. Indiana University Linguistic Club-ek argitaratua (1987).
- & Ortiz de Urbina, J., 1987, "Konfigurazioak euskaraz". Salaburu P. (arg.): *Euskal morfosintaxia eta fonologia*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak: Donostia, 129-156.
- , 1991a, "Zenbait perpaus txiki euskal gramatikan". In J. A. Lakarra (arg.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. "ASJU-ren Gehigarriak": Donostia, 985-991.
- , 1991b, "Partikula modalez ohar pare bat". *ASJU* XXV-3, 961-963.
- Ezeizabarrena, M. J., 1991, "Ezeztapenerako formen bilakaera bi haur elebidunen eta eleba-  
kar baten hizkuntz jabekuntzan". I. Idiazabal (arg.): *Hizkuntz jabekuntza haur elebi-  
dun eta elebarkarretan - Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües*. Euskal  
Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia. 183-195
- , 1994, "La concordancia con el sujeto en euskera: formas verbales de simple, doble y  
triple concordancia". J. Meisel (arg.): *La adquisición del vasco y del español en niños bi-  
lingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt, 181-229.
- Iatridou S., 1990, "About Agr(P)". 21-4, 551-577.
- Idiazabal, I., 1991a, "Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien ba-  
taz besteko luzeera (EBBL) edo 'MLU'". J. A. Lakarra (arg.): *Memoriae L. Mitxelena  
Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Foru Aldundia. "ASJU-ren Gehigarriak", 1289-1295.
- , 1991b, "Izen Sintagmaren determinatu-artikulua eta bere jabekuntza. Lehenengo  
emaitzak euskaraz eta erdaraz". I. Idiazabal (arg.): *Hizkuntz jabekuntza haur elebidun  
eta elebarkarretan - Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües*. Euskal He-  
rriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia, 169-181.
- , 1994, "Elementos de cohesión y conexión en las primeras fases de la adquisición del  
lenguaje: Análisis de la producción verbal de un niño vasco-hispanófono". J. Meisel  
arg.: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana:  
Frankfurt/Main, 35-68
- Joppen, S., 1994, "Subjunktiv im Baskischem". Eskuizkribua: Universität Düsseldorf.
- Laka, I., 1988a, "Ezeztapena euskaraz". P. Salaburu zuzendari: *Sintaxi teoria eta euskara*. Eus-  
kal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua: Donostia, 73-85.
- , 1988b, "Configurations head in inflectional morphology: The structure of the in-  
flected forms in Basque". *ASJU* XXII-2, 343-365.
- , 1991, "Negation in syntax: on the nature of functional categories and projections".  
*ASJU* XXV-1, 65-136.
- , 1992, "Negative complementizers: evidence from English, Basque and Spanish". J.  
A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.): *Syntactic theory and Basque syntax*. Gipuzko-  
ko Foru Aldundia. "ASJU-ren Gehigarriak": Donostia, 175-212.

- , 1993, "The structure of Inflection: a case study of X° syntax". J. L. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.): *Generative studies in Basque linguistics*. Benjamins: Amsterdam.
- Larrañaga, M. P., 1994, "La evolución del caso en euskera y castellano". J. Meisel (arg.): *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt, 113-150.
- Lebeaux, D., 1987, "Parameter-setting, the acquisition sequence, and the form of the grammar: the composition of phrase Structure". GLOW-en aurkeztutako lana: Utrech.
- Mahlau, A., 1994, "Orden de palabras y estructura oracional en los niños bilingües". J. Meisel (arg.): *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt, 69-111.
- Meisel, J., 1994a, "Getting FAT. Finiteness, agreement and tense in early grammars". J. Meisel (arg.): *Bilingual first language acquisition: French and German grammatical development*. Benjamins: Amsterdam.
- , 1994b, "La adquisición de la negación en euskera y español. Sobre la separación temprana de sistemas gramaticales por niños bilingües". J. Meisel (arg.): *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt, 151-180.
- & Müller, N., 1992, "Finiteness and verb placement in early child grammars: evidence from simultaneous acquisition of French and German in bilinguals". J. Meisel (arg.): *The acquisition of verb placement*. Kluwer Academic Publishers: Dordrecht, 109-138.
- Mendikoetxea, A., 1992, "Some speculations on the nature of agreement". J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.): *Syntactic theory and Basque syntax*. Gipuzkoako Foru Alduandia. "ASJU-ren Gehigarriak": Donostia, 231-164.
- Mujika, J. A., 1988, "Partículas modales de la flexión verbal". *ASJU XXII*, 465-478.
- Ormazabal, J., 1993, "Modal verbs in Basque and head-movement". *ASJU XXVII*, 836-845.
- Ortiz de Urbina, J., 1988, *Some parameters in the grammar of Basque*. Foris: Dordrecht.
- , 1992, "Inversión y movimiento verbal en euskara". *Revista Española de Lingüística* 22-1, 107-132.
- Ouhalla, J., 1991, *Functional categories and parametric variation*. Routledge: London.
- , 1992, *Functional categories, agrammatism and language acquisition*. Frankfurteko Unibertsitatea: eskuizkribua.
- Oyharçabal, B., 1992, "Structural case and inherent case marking: ergaccusativity in Basque". J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.): *Syntactic theory and Basque syntax*. Gipuzkoako Foru Alduandia. "ASJU-ren Gehigarriak": Donostia, 309-342.
- Parodi, T., 1989, "The acquisition of word order regularities and case morphology". J. Meisel (arg.): *Two first Languages: early grammatical development in bilingual children*. Foris: Dordrecht.
- Platzack C., 1989, "A grammar without functional categories: A study of early swedish child language". University of Lund: eskuizkribua.
- , 1992, "Functional categories and early Swedish". J. Meisel (arg.): *The acquisition of verb placement*. Kluwer Academic Publishers: Dordrecht, 63-82.
- Pollock, J. I., 1989, "Verb movement, universal grammar, and the structure of IP". *LI* 20, 371-424.
- Radford, A., 1986, "Small children's small clauses". *Research Papers in Linguistics*, 1, 1-38.
- , 1992, "The acquisition on the morphosyntax of finite verbs in English". J. Meisel (arg.): *The acquisition of verb placement*. Kluwer Academic Publishers: Dordrecht, 23-62.
- Uriagereka J., 1992, "The syntax of movement in Basque". J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.): *Syntactic theory and Basque syntax*. Gipuzkoako Foru Alduandia. "ASJU-ren Gehigarriak": Donostia, 417-445.